



Amaiurko Gazteluaren inaugurazioa martxoaren 7an

**Biztanleria → 22**

Azken 55 urteotako bilakaera

**BERA → 10**

Beilatokia eta Gaztetxea eztabaidan Udalean

**URROZ → 21**

Aurreikusi baino lehen araztegi berria martxan

**ERRATZU → 29**

Gaueko lanaren inguruan mendi ibilaldia hilaren 7an

**IPAR EH → 33**

Departamentuko bozak martxoaren 22 eta 29an

## Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna



IRUDIA: GARAZI ALBIZUA

Martxoaren 8aren bueltan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte eskualdean.

Bortziritan Emakumeen VI. Mendi ateraldia egingen dute. Baztanen, hitzaldia, dokumentala, ikuskizuna eta ipuin ez sexisten kontaketa saioa antolatu dituzte. Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan, *Loreak* filma eskainiko dute eta horrez gain, Txiapaseko emakumeen inguruko argazki erakusketa eta hitzaldia, bizikleta martxa feminista eta dokumentala izanen dituzte. Saran ere aldarrikapen eguna izanen dute martxoaren 8a.



**ERREPORTAJEA → 4-5**

Comete Sarea: Bigarren Mundu Gerran iheslariak eta hegazkin-pilotu aliatuak Bidasoaren alde batetik bertzera eramaten aritu zen sarea

**ELKARRIZKETA → 3**

**Bera, Doneztebe eta Lekarozko lau gaztek osatzen dute Dama metal musika taldea**

**BERTSOLARITZA → 16**

Nafarroako Txapelketako 2. finalaurrekoa Lesakan jokatu dute hilaren 8an Aimar Karrika, Ander Fuentes, Xabier Terreros, Julen Zelaieta, Amaia Elizagoien eta Kotte Plazak.

**ZOKKETAK → 44**



Txartela egiteko deitu  
**948 63 54 58ra**



Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo [www.berakoagenda.net](http://www.berakoagenda.net)




# martxoa

## berako agenda

**1** igandea

**TXOTXONGILO SAIOA:**  
Erreka Mari (Txotxongillo Taldea)  
3-9 urte bitartekoentzat  
17:00 • Kultur Etxean • Sarrera: 3€  
Antolatzailea: Labiaga Ikastola

**23** astelehena

**DOKUMENTALA:**  
Aulki hutsak  
(Hizlaria: Mirentxu Goietxe)  
17:00 • Beralandetan

**27** ortziralea

**"Haizea eta ura: Organoaren artea BidaSoaldean"**  
Dokumentalaren aurkezpena eta organoaren bisita gidatua  
19:30 • San Esteban Elizan Elebitan

**5** ortzeguna

**BAKEA ETA BIZIKIDETZA:**  
Iragana, oraina eta etorkizuna  
"auzolanean bakea eraikitzen"

**ETORKIZUNA:** Berako etorkizuneko bizikidetza landuz  
(Open Space dinamika)  
19:00 • Beralandetan Elebitan

**27** ortziralea

**HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA:**  
"Kamishibaiak, ipuin txikiak"  
(Ixabel Millet)  
4-8 urte bitartekoentzat  
18:00 • Herri Liburutegian

**28** larunbata

**BERA KANTARI**  
19:00  
Illekuetatik hasita

**8** igandea

**KONTZERTUA:**  
Mozarten Requiema  
(Leitzako Jeiki AbeSbatza)  
13:00 • San Esteban Elizan

**13** ortziralea

**HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA:**  
"Hotz ala bero, ipuinak egunero"  
(Patrizia Eneritz)  
4-8 urte bitartekoentzat  
18:00 • Herri Liburutegian

**18** asteazkena

**BERAKO BESTETAKO BILERA IREKIA**  
19:30 • Beralandetan

**23** astelehena

19:00 Beralandetan gazteleraz

**25** asteazkena

17:00 Beralandetan euskaraz

**14** larunbata

**ANTZERKIA:** 100m<sup>2</sup> (Inake Irastorza, Ana Elordi eta Ramon Agirre) 20:00 • Kultur Etxean • Sarrera: 6€  
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea  
Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

**21** larunbata

**KORRIKA** Beratik pasatuko da  
14:50ean eta 17:06an

**KONPOSTAREN INGURUKO SAIOAK**

**Nazioarteko Kenpo Kai konbentzioa**  
martxoaren  
**27, 28 eta 29**an  
Toki Ona Kiroldegian



2015

## FINALAURREKOA

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

# LESAKA

## MARTXOAK 8 - IGANDEA

### 17:30

### KULTUR ETXEA



Nafarroako  
Bertsolari  
Txapelketa

AIMAR KARRIKA



ANDER FUENTES "ITTURI"



XABIER TERREROS



JULEN ZELAIETA



AMAYA ELIZAGOIEN



KOTTE PLAZA





Antolatzailea  
nafarroako  
bertsozale  
elkarte



Laguntzailea  
ttipi-ttapa

Berako Jon Esteben Agara gitarraistak, Doneztebeko Ramontxo Etxebeste bateria-jotzaileak eta Txomin Sapuppo (*Piztia*) ahotsak eta Lekarozko Iker Plaza baxu-jotzaileak osatzen

dute Dama metal taldea. 2010etik dabilta elkarrekin eta duela hilabete batzuk bigarren diskoa kaleratu dute: *Hil baino lehen*, Jorge Mariñelarena teknikariaren laguntzaz. Aitortu

digutenez, etorkizunak ez ditu sobera kezkatzen, eta momentua bizi dute: «zoriontsu egiten zaituenari eutsi, ametsi egin gogor ekin beldurrik gabe, borrokatu eta inoiz ez damutu».

Jon Esteben AGARA, Ramontxo ETXEBESTE, Txomin SAPUPPO eta Iker PLAZA | Dama musika taldea

# «Dena ongi badoa, aitzinera egingen dugu ilusioz eta zakarkeriaz beterik»

## G. PIKABEA

### Nolatan sortu zenuten Dama taldea?

Damako kide guztiak berzte taldeetan ibiliak gara eta aspalditik ezagutzen dugu elkar. Ideia Jon Estebenek eta Ramontxok hasi zuten, proiektu berri, gogor eta makarra bat prestatzen hasi zirenean. Urte bat eman zuten gutxi gorabehera lehenengo kantuei forma ematen eta 2010ean Txomin eta Iker proiektura batu ziren orain Dama dena osatuz.

### Nola deskribatuko zenuketue zuen musika?

Metalaren barruan mugitzen gara, baina ez esitilo jakin batean, hau da, kantak konposatzera koan ez dugu estilo hau edo bertzea bilatzen, sentazioak bilatzen ditugu. Sentazio horiek aunitzetan indarra, gogortasuna, gordintasuna, tinkotasuna... izan daitezke, eta horiek dira gure musikaren ezaguri nagusiak.

### Zein alde dago lehen diskotik *Hil baino lehen* bigarren honetara?

Biek hari berdinari jarraitzen diote, bata bertzearen eboluzio naturala dela erran genezake. *Hil baino lehen* lan borobilagoa da, ideia argiagoak daude eta lehen diskoko bide jarraituz, iluntasun eta tinkotasun are handiago eman nahi izan diogu. Bertzalde, soinu eta produkzio al-



UTZITAKO ARGAZKIA

Dama taldea 2010ean sortu zuten Bera, Doneztebe eta Lekarozko lau gazte hauek.

detik, alde dezentea dago, bigarren honetan lan hobea egin dugu zentzu guztietan. Zortzi kanta motz eta gordin daude, indarra eta agresibitatea azaleratzen dituztenak, baina era landu batean. Lan motza da, betelanik gabekoa, eta ez dago alferrikako akorde edo kolperik.

### Zergatik izen hori?

*Hil baino lehen* kanta konposatu genuenean, izenburu eta ideia ezin hobea iruditu zitzaigun hurrengo diskorako. Ideia hau momentua eta egunerokoa bizitzeko ideiarekin estu lotuta dago, baina muturreraino eramanda. Zoriontsu egiten zaituenari eutsi, ametsi egin gogor ekin beldurrik ga-

## DISKO BERRIA

«Alde batetik, soinu gogorra eta tinkotasuna nabarmenduko genuke azken diskotik, kanta landuak eta mezu zuzena dira. Bertetik, diseinu eta estetika ederrak».

## BARATZEGILL ZIGILUA

«Gure entsegu lokala Doneztebeko baratze bateko txabola batean dago. Beti baratze inguruan gaude eta hor sortzen dira Damaren doinuak. Zigilu bat behar genuen eta izena hagitz originala, pertsonala eta dibertigarria iruditu zitzaigun».

be, borrokatu eta inoiz ez damutu.

### Zer moduzko harrera izaten ari da?

Harrera ona, ez gara kezkatzen. Oraindik zabalitze lanean gabilta, baina kritika onak jasotzen ari gara. Diskoaren salmenta ez da erraza gaur egun, baina guretzat garrantzitsuena nahi duenak diskoa entzun ahal izatea da. Diskoa Interneten ere jarri dugu. Gaur egun, musika zabaltzeko erarik eraginkorrena da, edozeinek ikus dezake diskoaren diseinua eta entzun, nahiz eta fisiko ez izan. Ezinbertzekoa da gu bezalako talde batak sare sozialak eta Interneteko bertze zabalitze erremintak erabilteza.

### Nola doaz kontzertuak?

Ongi, kontzertu dezentte ematen ari gara eta oraindik aunitz gelditzen zaizkigu aurrean. Guretzat garrantzitsuena zuzeneko da eta ahalik eta emanaldi gehien ematea. Ez dugu kontzertua emateko leku konkretu bat nahiago, bertze edozein baino. Kontzertu handia, ekipo handiarekin eta jende aunitzen aitzinean, festival edo mota horretako jaialdi batean jotzea ametsa izanzen litzateke.

### Nola ikusten duzue zuzen musika eskualdean?

Gure musika ez da publiko guztiarentzat. Gure eskualdean jende gutti bizi gara eta beraz, musika hau gustuko dutenak gutti dira. Halere, hemen eman ditugun kontzertuetan harrera ona izan dugu, eta lagunez aparte, printzipioz estiloa gustuko ez duten pertsona aunitzek kontzertua dibertigarria egin zaiela erran digute. Horrek izugarri poztzen gaitu.

### Nolako etorkizuna ikusten diozue taldeari?

Ez dakigu zer nolako etorkizuna izan den dugun, hori ere polita da. Gure bigarren diskoaren mezuari jarraituz, zoriontsu egiten gaituen honi eutsiko diogu eta dena ongi doan heinean eta jendearen erantzuna jasotzen dugun heinean, aitzinera egingen dugu ilusioz eta zakarkeriaz beterik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xan Mihura Jauregiko bordako atarian.

**COMÈTE SAREA** → XAN MIHURA SAREKO LAGUNTZAILEA

## Muga igarotzeko mugarik gabeko laguntza

Xan Mihura mugalariaren istorioa gertutik

Isilean egin beharreko lana zen. Eta erdi isilean igaro da historiako gertakarietan ere haiek egindakoa. Bizia arriskatuz, bizitzak salbatu. 1941 eta 1944 urteen artean aritu zen lanean Comète sarea eta euskal herritarren laguntza ezinbertzekoa izan zen. 800 hegazkin pilo-

to Piriniotako mugaren beste alde-  
rat eramatea lortu zuen sareak.  
Horietatik 80 inguruk Urdazubi eta  
Baztango lurretan barna egin zuten  
bidea, Jauregiko bordako Xan  
Mihura bidelagun izanda. Xanen  
senideekin bildu da TTIPI TTAPA  
bere istorioa ezagutzeko asmoz.

### Eneritz IRAOLA

Bigarren Mundu Gerra, bomba eta fusil soinuak gogor aditzen ziren garaian, Euskal Herriko muga ihesbide garrantzitsua bilakatu zen ezkutuan Alemaniako nazien aurka ari zirenen tzat.

Comète sarea izan zen iheslariak eta hegazkin-pilotu aliatuak Bidasoaren alde batetik bes-  
terat eramaten aritu zen sare-  
rik ezagunena. Gidariak Londrestik abiatzen ziren Holanda, Belgika edo Frantzia aldera, alemaniarrek okupatu zituz-

ten lurraldeen aurka bonbak jaurtitzera. Hegazkin haietako aunitz lurre-  
ra botatzen zituzten naziek eta gertakari horietan bizirik lurreratzen ziren hegazkin-gidarien biziraupena bermatzeaz-  
en sarearen egiteko bat. Ihesian zebiltzan hegaz-

### SAREKO KIDEAK

Comète sareko laguntzaile euskaldun gehienak kontrabandistak ziren. Inguru-  
a ezagutu eta lanak zekarren arriskua ongi ezagutzen zutenak.

dagoen Jauregiko bordan. Artzaina zen ofizioz, eta kontrabandotik lortzen zuen familia aurrera ateratzeko beharrezko gehigarria, mugaren alde batetik bertze-  
ra puntillak, pelikulak... eramenez. Ezpeletako Aguerre anaien eskutik iritsi ziztaion Comète sareko kide izateko gonbidapena eta arriskuak ulertuta onartu egin zuen.

### XANEN IBILBIDEAK

Jauregiko bordatik 500 metro eskasera zegoen Lapurdiko muga eta horregatik toki hagit-  
z estrategikoa zen. Bertan hegazkilariak jas-  
o eta **Jauregiko borda** eramaten zituzten, bertan indarrak hartu eta

### ADOREA

«Beti zegoen beldurra, Guardia Zibila eta alemaniar-  
rak baserrira etortzen zirelako noiznahi. Baina bizitzan ausardia izan behar da».

Ignacio MIHURA  
Xan Mihuraren semea

### XAN MIHURA

Xan Mihura izan zen sareko laguntzaile horietako bat. Baztango lurretan, Lapurdiko mugatik hurbil bizi zen bere familiarekin. Hain zuzen, Lizartzuko kaxko azpian



UTZITAKO ARGAZKIA  
Comète sarearen bideak biltzen dituen mapa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xanen familia irudian. Baserrian ustekabeko bisitak aunitzetan izan arren, ez zituzten harrapatu.

#### ADOREA

«Lau edo bortz hegazkinlariko taldeak izaten ziren, paisanoz jantziak eta ez zuten mendiko oinetakorik erabiltzen».

Justo MIHURA  
Xan Mihuraren semea

zaurituta bazeuden sendatzeko. Biharamunean abiatzen ziren Mortalenean, 15 kilometroko bidea eginaz. Haren seme zaharrenak ere, Ignacio eta Justo Mihurak, lagundu izan zieten bidean. Bide garrantzitsu eta ezagunenak ekiditen zituzten eta hala ibilbidea osatzeko «Lauzeta, **Lizartzu**, Antseteiko lepoa, **Ojonxilo**, gaur egungo Gorramediko pistatik hurbil, Itzulegi, Intzpideko lepoa, **Meakako lepoa** eta Altxuko bordatik barrena» iristen ziren **Mortalene**ara.

Mortaleneatik **Erratzura** eramaten zituzten eta handik gero **Donostia**ra joaten ziren bizikletan. Gero **Madril**, **Gibraltar**, **Londres**... aldera iristeko. Amaiurko Kanttorreneko bordara (Kanteronean) ere eramaten zituzten hegazkinlari batzuk. Ibilbidea berdina zen baina Itzu-

legira iritsi aurretik eskuinerantz hartzen zuten.

#### LANA ISILEAN

Ignacio eta Justok gogoan dute gaiaren inguruan isiltasuna zela nagusi, «isilean eramaten zen lana zen, adibidez Urdazubi eta auzoko baserrietan ez zekiten gure sabaian hegazkinlariak izkutatzen genuenik, ezta aita eta anaiak mugalari gisara ibiltzen ginenik ere». Ongi mantendu zuten sekretua, «80 hegazkinlari inguru pasa ziren Jauregiko Bordatik eta muga pasatzeko bidean, ez zen bakar bat ere galdu».

#### OMENALDIA ETA IBILBIDEA

2014ko irailaren 13an Euskal Herriko Comète Sareak omendu zuen Xan Mihura Urdazubin egindako bilkuran. Ezpeleta eta Jauregiko Bordako bidea osatu zuten bertaratu zirenek, tartean, Xanen seme-alaba, biloba eta birbilobek. Urtero egiten dute bilkura Euskal Herriko Comète sareko kideek eta 2016ko ospakizunetan Xanek egin ohi zuen ibilbidea-  
kuratu nahiz dute. Jauregiko bordatik Mortalene-  
arako bide zatia oinez eginaz.

#### IGNACIO ETA JUSTO, XAN MIHURAREN SEMEAK

## «Armarik gabe borrokatuta alemaniarrei aurre egitea lortu zuten»

### Gogoan duzue aita nola egin zen sareko kide?

Bi anaia kontrabandista zeuden, Pierre eta Baptiste Aguerre, Ezpeletako Burruntxalinean baserrikoak. Alemaniarrak gibeletik zituzten. Eta badirudi haien bidez sartu zela Xan Comète sarean. Konfidantzazko mugalariei eskaintzen zieten sareko parte izateko aukera, serio eta segurunez. Laguntzaile horietako asko gainera gerra zibileko erbestetatuak ziren.

### Nola egiten zuten Jauregiko Bordatik Erratzurako bidea?

Lehen mailako bideak ekiditen zituzten, xendak erabilia eta mendiz gaindi joanda. Lau edo bortz hegazkinlariko taldeak izaten ziren, paisanoz jantziak eta ez zuten mendiko oinetakorik erabiltzen.

### Nolakoak ziren hegazkinlariak?

Beti ikaraz egoten ziren, eta ez zen harrizkoa Gestapokoak atzetik zituzten eta baita naziak eta frantziarrek kolaboratzen zuen gendarmeria eta guardia zibil espainiarria ere. Baina nabari zen jende jatorra zela, edukazio onekoa eta ongi hezitakoa.

### Komunikatzeko nola moldatzen ziren beraiekin?

Xanek bazekien frantses pittar bat eta hegazkinlariak beste pixka bat, horrela moldatzen ziren.

### Non eta nola jasotzen zituzten hegazkinlariak?

Baptiste, eta Pierre Aguerre eta Pierre Etchegoyenek hegazkinlariak

ekartzen zituzten Ezpeletatik, Larresorotik mugaraino. Bertan Xanek jasotzen zituen, jaten eman eta belartegian egiten zuten lo. Hurrengo egunean zeharkatzen zuten muga. Xanek ez zuen hegazkinlari bat ere galdu eta larrogei edo pasatu ziren gure baserrietik.

### Beldurra ere sentituko zenuten...

Beti zegoen beldurra, Guardia Zibila eta alemaniarrak baserrira etortzen zirelako noiznahi. Baina bizi-  
tza ausardia eduki behar da.

### Familiak nola bizi zuen egoera?

Familia baserrietik bizi zen eta kontrabandoa eta mugalari lana... arriskutsuak izan arren, aurrera egiteko laguntza gehigarriak ziren gurtzat.

### Armarik hartu gabe gerraren parte garrantzitsua zineten...

Xan artzaina izateaz gain, bizi-tza osoan egon zen mugari lotua. Pertsonak, lehengaiak... alde batetik bertzera pasaz ibiltzen zen. Hegazkinlariak emandako laguntza bere ustetan ez zen gerra, bere bizi-modua zen.

### Ez da gehiegi hitz egin izan gai honetaz...

Aukera sortu zen eta egin egin zen, muga pasatzen lagundu zitzaient. Gerra bukatu zenean, bukatu egin zen hura. Bakoitza berera itzuli zen. Orain hasi dira omenaldiekin eta, iaz omendu zuten aita Urdazubin eta polita izan zen familia guztia aitakia horrekin elkartzea eta berak egindako bideetatik barna ibiltzea.



Ignacio eta Justo Mihura.



**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Gure ura eta bertze urak

U saian, biziki estimatzen dugu gure hurbilekoa duguna: gure musika, gure janaria, gure herria, gure bazterrak... baina ez da gauza bera gertatzen gure urarekin. Gero eta gehiago edaten da dendetan saltzen den ura, gure mendietako itturrietan sortzen dena baino.

Gure grifotik ateratzen den urak kloro gustua duela, edo bate-re ona ez denaren aitzakian, gero eta diru gehiago ematen diegu ura botiltzera dedikatzen diren enpresei. Berriki irakurri dut, gure etxeetako ura analizatu ondotik, ona edo arras ona dela ikusi dutela (ia-ia % 90eko kasutan). "Xoxa" kontutan hartuz, botilako ura edanez 30 eurotik goiti ordaintzen omen du hilabete-an familia batek, baina grifoko ura edanez gero, hilabetean 0,25 euro bakarrik. Eta ingurumena kontutan hartuz, zer erran? Erositako urak kalte aunitz sortzen ditu: botilako plastikoa sortzeko erabiltzen den petroleoa, botilak garraiatzean sortzen den kontaminazioa, botila hutsak sortzen duten plastiko-hondakin pila... Eta hementxe utziko dut "gure uraren aldeko manifestua".

«Erositako urak kalte aunitz sortzen ditu»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Berdin gehiago da (= +)

H itz jokoa baino, matematika jokoa aukeratu dute Emakumearen Egunaren goiburutzat: Berdin gehiago da. Argazkilariek 'guttiago gehiago da' erratan dute, objektiboa gehiago hurbildu eta argazkian beharrezko osagaiak bakarrik agertzeko, baina kasu honetan, ez al da objektiboa soberan hurbiltzen, emakumeen aldarria egun bakarera mugatuz? Egun bat berdin urte bat: (1=365).

## Nabarmentzekoak



Fernando ANBUSTEGI  
Elizondoko idazlea



Ane BERGARA  
Espainiako selekzioan



Ander FUENTES «ITTURRI»  
Zubietako bertsolaria

Begarako Jardun elkar-teak 23. aldiz antolatutako Amodiozko Gutunen lehiaketan bigarren saria eskuratu du Xorroxin Irratiko esatariak, aurkeztutako 87 idatzien artean.

Errealeko futbolari beratarak Espainiako selekzioak Kanadako Munduko txapelketa prestatzeko antolatutako lagunarteko bi partidetan jokatu du. Mundialean ari-zeko ametsa hurbilago.

Lizarrako saioan nagusituta lortu du Nafarroako bertsolari txapelketako finalaurrekoetarako sailkatzea. Berekin batera, eskualdeko bertze 9 bertsolari ariko dira finalerako txartel bila.

Atzera begira → 1995-III-02 / TTIPI-TTAPA 152. zk.



## Lanaren esklabo ez izateko, lau baserri elkartuak Saran

«Laborantzatik bizitzen ahal da, baina esklabo! Hortxe dago problema». Halaxe adierazi zion TTIPI-TTAPARI duela hogeit urte Omordiko Jan Battite Indart-ek. Eta lanaren esklabo ez izateko, Omordiarekin batera bertze hiru baserri (Muga Alde, Atxuri Alde eta Agustinen Borda) elgarretaratu ziren, beren ondasun guztiekin. Iparralde osoan zentzu honetan lehenbizikoa zen esperientzia Saran abiatu zen. Lau baserri horiek beren lurra, azindak eta makinariak bildu egin zituzten eta guzi horiekin 'Geroari' izeneko elkarte osatu berri zuten. »Animali-ekin lan egiten duenak, egunero behar du haien gibeletik ibili. Baserriak elgarretaratu, zera hori aisa hobekiago erematen ahal da» zioten saratarrek.

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaiak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortziritako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua

**MEKNA**  
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



## Kolaborazioak

### Agintariak gure etsaiak

Pello APEZETXEA

Azkeneko urteetan inoiz baino gehiago aipatzen dira agintariak, bai mintzatzean, bai idaztean. Eta ez prezeski laudatzeko, gehienetan behinik behin, baizik eta kritikatzeko eta gaitzesteko. Beti izan dela kritikatuak kargu publikoa duena? Bai. Eta ulergarria da, neurri batean. Jende anitzen ardura izateak, gauza anitzez jabetzeak, kritikatzaille eta kritikagai ugari sortzen ditu. Baina ugari hori handiago edo tikiago izaten ahal da, eta gaur egungoa izugarria dela erran beharrean gaude.

Eta zein dira kritika eta gaitzespen ugari horien arrazoiak? Larriena, zalantzarik gabe, ustelkeria. Edozein gai, biziduna normalean, bere izaera eta eragina galtzen duenean erraten dugu usteldu dela. Agintariaren eginkizuna jendartea zaintzea eta horren ongizatea biltzea dela uste izaten dugu. Horregatik hautatzen dute herritarrek.

Baina, hauek alde batera utzita, bere komenientzi pertsonalen alde badabil, agintari horrek bere egiazko izaera galdu duela erraten ahal dugu, usteldu dela. Jendearen osasungintza, ikaskuntza eta bertze hainbat gauza lagundu beharrekoak dira, haurtzaro eta zahartzaroko denboran, batez ere; izan ere, anitzen ahalbide indibidualak edo familiarrak ez baitira zenbaitetan aski behar horiek betetzeko.

Baina, eskasia egoeratan laguntza eman ordez, jendeak duena neurritz kanpo kentzen hasten badira, onartezin bihurtzen da agintarien jokaera. Eta hori da, noski, gertatzen ari dena urte hauetan. Lanbideak gutitzea, journalak tikitzea, etxebizitzak ezin ordainduta bizilagunak kanporatu eta banketxeek eskuratzea, eguneroko janari behar beharrezkoa bera ere haurrei eskaintzeko modurik ez izatea, hau dena eta gehiago egunero ikusten edo entzuten dugun gauza da. Gero eta pobretze gehiago, gero eta eskale gehiago. Baina bertze batzuk lotsagabeki aberasten diren bitartean.

Agintariak gure etsaitzat jotzea, hainbatetan guk geurok hautatuak izan direnak, ez ote da akusazio larriegia? Baina jendearen bizimodua txartzearen errudun baldin badira, herritarren sufrimendua handitzea eragiten ari badira, ez zaie jendartearen etsai deitzen ahal? Agintariak erratean, hori bai, kargudun handi samarrak ditugu gogoan, batez ere. Eta diru multzo handien jabeak.

«Agintariak gure etsaitzat jotzea, hainbatetan guk geurok hautatuak izan direnak, ez ote da akusazio larriegia? Baina jendearen bizimodua txartzearen errudun baldin badira, ez zaie jendartearen etsai deitzen ahal?»

### Euskarak limurtu behar gaitu

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Otsailaren 17an, Patxi Baztarrika jauna ikusi eta entzun nuen ETB1en, berriz ere esaten euskarak limurtu, gogatu, konbentzitu eta erakarri behar gaituela, gustatu eta atsegin behar zaigula, sentibera bihurtu behar gaituela harekiko, eta abar.

Adierazpen horiek guztiak egin zituen, Euskararen Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak jakin zituztenean datu batzuk. Eta zein izan ziren datu haiek? Bada, komertzio, enpresa, saltoki handiek, eta abarrek, %30ek bakarrik betetzen dituztela Legearen euskararekiko exijentziak, hau da, euskaldunen hizkuntza eskubideak leku horietan, nahiz eta exijentzia horiek oso txikiak izan, eta dagoeneko igaro diren urte dezente. Horrek esan nahi du, noski, %70ek ez duela Legea betetzen, eta hala eta guztiz, ez zaie deus ere gertatu, alegia, ez dute ezertxo ere ordaindu behar izan: ez inolako isunik ez eta inongo zigorririk ere. Hortaz, kasu horretan behinik behin, Legea betetzea ala ez betetzea, berdin-berdin ateratzen da, gauza bera gertatzen da. Baina, zer lege mota da hori? Non ikusi ote da halakorik? Gainerako lege eta arauekin gertatu ohi da, ez bete zergo, zigor edota isunen bat ordaindu behar izaten dela, baina euskaldunen hizkuntza eskubideen kasuan ez, desegokia omen da halako zerbait egitea. Ez, euskara ez omen da inposatu behar, ez omen da komeni behartzea...

Euskal Herrian frantsesa, espainiera eta ingelesa inposatzen zaizkigu, nahiz eta ez izan hemengo berezko hizkuntzak; inork ezin die izkina egin. Nik galdetzen dut, ea zergatik gauza batzuk, baita hizkuntza batzuk ere, inposatu eta behartu ahal diren eta beste batzuk, ordea, ez –euskara, galiziera, kataluniera, bretoiera, eta abar kasu–.

Munduko estatu guztiek inposatzen dituzte beren hizkuntzak, konparaziora, Frantziak, Espainiak, Portugalek, Italiak, Greziak, Turkiak, Marokok, Saharak, Indiak, AEBk, Mexikok, eta abar, eta abar. Euskal Herriak, aldiz, ezin du inposatu –eta ez omen du egin behar gainera–, zergatik? Horregatik, hain zuzen ere, Euskal Herria oraintxe bertan ez delako estatua (garai batean izan zen, ordea, Nafarroako Erresumaren garaian, esaterako). Hortxe dago koska, horixe da termometro, barometro eta adierazlea. Nik ez dakit Patxi Baztarrika jaunak irakurri ote duen Pako Aristiren *Euskararen isobarak* izeneko liburua, baina esaten dituen gauzen arabera behinik behin, ematen du, kontzeptu batzuk oraindik ez dituela oso argi. Zergatik ez du aitortzen argiki konkistatuak, menperatuak, kolonizatuak eta zapalduak gaudela?, ez dugula erabateko askatasuna, gure funtsezko erabakiak hartzeko momentuan? Bai, limurtzearen teoria oso polita, ederra, goxoa, ez, erakargarria, estimulagarria, beharrezkoa eta abar da, baina ez da nahikoa. Edo Baztarrika jaunak zer pentsatzen du, zer uste du, munduko atzeritar guzti-guztiek ikasten dituztela alemana, txinera, errusiera, japoniera, frantsesa, ingelesa, espainiera, eta bat eta beste, estatu horietara joaten direnean, hango hizkuntzak arrunt eder, erakargarri, estimulagarri, goxo, ez, limurtzaileak, eta abar direlako bakarrik? Nik behintzat ez dut halakorik sinisten.

## Irakurleak mintzo

Martikon  
9 langile  
kaleratuak

Angel MAYORDOMO, Miguel Angel ETXEGARAI, Fernando OTXOA, Sabino GOMEZ, Arantza AGIRRE eta Nagore INDAKOETXEA

Martiko lantegian urte aunitz eman ditugu lanean. Gustora aritu gara urte luze hauetan eta uste dugu zuzen eta fundamentuz egin dugula lana. Aunitz ikasi dugu eta aldi berean aunitz eman dugu, gure lanarekin kitatu dugun soldata baten truke. Ez dugu deus gaizki egin dugunaren sentiazirik ezta damurik ere. Aurtengo urtarrilaren 9a arte. Egun horretan, ortziralara, goizetik dei egin zigun zuzendaritzak eta banan banan eman ziguten berria. Kaleratu gintuztela, ez zutela gehiago gure beharrik. Goiz horretan Martikok egin zuena ez da bidezkoa, ez da zuzena, ez du zilegi.

Ez da bidezkoa ongi joan den kanpaina gogor baten ondoren era horretan ematea berria. Hotza eta bihotzgabea urte luzeetan lanean aritu garen langileoi "agur" erratea. Abendua izaten da Martikon hilabeterik gogorrena, langile gehienoi jai egunetan orduak sartzea egokitu zaigularik. Buru belarri lan egin dugu lantegiarantz on dena, guretzat ere ona izango zena uste osoarekin. Zeinen inozoak izan garen! Bitartean Martikok erabakia hartua zuen.

Presaka eta korrika, ostiral baten familiarekin asteburu goxo bat pasatzeko, erregetako oparia eman ziguten. Ez genuen uste, harrিতa geratu ginen, txundituta, lur jota eta zergatia ulertu ezinik.

Ez da zuzena hain erabaki bortitza gaue-tik goizera, aurretiko komunikaziorik gabe, era horretan burutzea. Langile baten kaleratzea erabaki gogorra da, langile eta lan-emalearen artean egon daitekeen harremana hausteko neurri gogorrena. Une horretara iritsi aitzinetik, hainbat pausu eta sukalde lan egin behar da, hainbat irteera ezberdin badaude egoera horretara iritsi aitzinetik, guziak aztertu behar dira, bide guztiak jorratu behar dira, zubilana egin eta beharrezkoa den denbora eta pazientzia hartu langileak eta enpresarentzako irtenbide egokiak bilatzeko. Martikok ez du horrelako ezer egin nahi izan. Abenduan, gu inoxo-inox lanean ari ginen bitartean, enpresa gu noiz eta nola kaleratu erabakitzen ari zen. Bihotzgabe, zahar-kitutako eta baliorik gabeko tramankuluak izanzen bagina bezala.

Ez da zilegi, langileak lan tresna bezala erabiltzea. Kaleratutako gehienak urte mordo bat generamatzen Martikon lanean, denen artean 175 urte. Gutako batzuk kasik umeak ginela hasi ginen hemen lanean, orain gure lan bizitzaren azken zatira hurbil-

tzen ari garen honetan, kale gorrian utzi gaituzte, kotxe zaharrak txartegira botatzen diren era berean, babes gabe utziz. Eta hori da harrigarriena, bere ibilbidean Martiko zerbait izan bada, babesle izan da. Babestu egin dituelako, erreka honetan buturu diren hainbat proiektu, kultura, kirola baita bertze arlo batzuetakoak ere. Urteetan zehar egoera zaila bizitzen ari ziren hainbat pertsona lanean hartu eta babestu izan ditu, egun hauetan, guregana hurbildu diren hainbat herritarrek horixe ekarri digute gogora behin eta berriz. Nola baina? Nola egin dezake Martikok holakorik, pertsonak laguntzeagatik izan baita ezaguna Martiko. Juxtu orain kontrakoa egiteko. Egoera zailera bidali gaitu 9 langile eta gure familiei inolako justifikaziorik gabe.

Era horretako erabakiak enpresa multinazionalek hartu ohi dituzte, Londreseko bulego baten erabaki dezakete Altsasuko lantegi bat itxi eta hango lana Txinako enpresa baten egitea. Inolako gupidarik gabe, gaue-tik goizera eta langileekin ezertarako kontaktu gabe. Neurrigabeko diru gose ase ezinak bultzatuta funtzionatzen dute. Haietik sikierra ez dituzte langileak zuzenean ezagutzen, ez dakite nor diren, ez dute haiekin herriko denda eta ostatuetan egunero topo egiten, ez dute elkarrekin

herriko bestetan trago-rik hartzen.

Dirua neurtzea erreza da, horretarako kontabilitate liburuak daude eta erabiltzen dira. Gizatasuna neurtzea ez da hain erraza, baina hori pertsonen eta herriaren memorian gordeta geratzen da. Egun hauetan argi eta garbi

ikusitako ahal izan dugu, guregana hurbildu diren herritarrek aditzera eman diguten bezala.

Guretzako bizi berri bat hasiko da orain, jakintsuek erraten dutenez, ate bat ixtean leioak irekitzen omen dira, horixe da gure esperantza eta desiorik handiena.



**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
**KATEA-BIKE**  
bizikletak, osagarriak  
eta kirol-makinak!!!  
CANYON ORBEA  
MASSI  
SCOTT MERIDA  
**15. urteurrena**  
**DESKONTUAK**  
%5etik %50era

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**





Bagoaz, baguzi, bagazi  
ttipi-ttapa haziz!

**MEKONA**

MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

2015EKO  
**ERRENTA**  
**AITORPENEAN**  
BERRESKURATUKO DITUZU

Deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **bagoaz@ttipi.eus** helbidera

### Prentsatik bildutakoak



«Azkenean, kirol bizi-  
tzak urte asko ditu eta  
batez ere lesioetatik  
bizirik ateratzeko  
suerte hori izan behar  
duzu. Nire kasuan,  
lesio larriak izan ditut  
eta suerte txar hori  
izan dut, baina aldi  
berean lesio guztieta-  
tik atera eta oraindik  
orain konpetitzen  
segitzeko suerte ona  
ere izan dut. Ez dago  
erri egoteko sekretu-  
rik. Garrantzitsuena  
eguneroko lana da».

**Abel BARRIOLA**

Leitzako pilotaria  
D.NOTICIAS 2015.02.21



«Oso gustagarria da  
horrelako taldeburu  
batentzat lan egitea,  
behin lan eginda  
emaitzak lortzen  
dituelako gero».

«Euskal Herrian behar  
zen Muriasen gisako  
talde bat, gazteenei  
aukera emateko.  
Poztekoa da talde  
batek horrelako aurre-  
rapausoa ematea eta,  
ea zorte pixka bate-  
kin, haziz joateko  
aukera daukan».

**Mikel NIEVE**

Leitzako txirrindularia  
BERRIA 2015.02.26

### 11 galdera labur

**Nor dugu Amaia Mariezkurrena?**

Ezkurrako erotik eta Zubietako ji-  
totik daukan, leitzar fanfarrona,  
(kar kar)

**Tabernako barraren atzetik zer  
ikusten da?**

Egunero ikasten da zerbait, esko-  
la ona da hosteleritza.

**Jubilatuena tabernan, bi gazte zer-  
bitzari...**

Bueno.....pixka bat paradajikoa  
da baina, adin guztietako jendea  
ibiltzen da.

**Zein da gehien eskatzen dizuten  
edaria?**

Ardoa, gora  
txikitero-  
ak!

**Zein afizio dituzu?**

Ahal dudan guztietan bidaiatzea,  
kafe tertuliak, parrandak.....etab  
luze bat!

**Hegazkin txartel bat oparituko  
balizute, nora egingen zenuke ihes?**

Orantxe bertan Karibe aldera,  
bero bila.

**Bost izarreko hotela edo motxi-  
la txikiaren askatasuna nahiago?**

Egia esateko biak ditut gustuko,  
tokia eta konpañiaren arabera.

**Bisitatu duzun tokirik politena?**

Erantzun zaila....Ibizako kosta,  
Lisboako alde zaharra, Londres  
hiria, Municheko kultura....denek  
dute xarma berezia.

**Leitzak zer du faltan eta zer so-  
beran?**

Faltan, klima tropikala nere gus-  
turako eta soberan, lasai bizitzen  
uzten ez diguten eta trabak jar-  
tzen dizkiguten horiek.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ba ez dakit, etorkizuna kontutan  
hartuz baina egunean egunekoa  
egiten saiatzen naiz.

**Amets bat?**

Nere buruarekin ekilibratua eta  
zoriontsu sentitzea eta maite  
ditudanak ondoan izatea.



**Amaia MARIEZKURRENA SANTESTEBAN → Leitzako gaztea**

## BERA

BIDAIAK → OTSAILAREN 10EKO BATZARREAN

# Beilatokiak eta gaztetxeak eztabaida piztu dute Udalean

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 10eko udal batzarra mamitsua suertatu zen eta beilatokiari eta gaztetxeari buruzko eztabaida sakonak eman ziren.

Iturlandetan Irache Tantorio taldeak ireki nahi duen beilatokiaren inguruan Bilduk aurkeztutako proposamena ez zuen onartu Udalak. Alde bozkatu zuten Bilduko lau zinegotziek eta UPNkoak eta kontra Aralarko hiruk eta PNVko biak. Azkenean, alkatearen kalitatezko botoak erabaki zuen.

Idatziak zioenez, «herrian arazo bat dago, bizilagunen desadostasunaren gainera beilatoki bat eraikitzen ari direlako etxebizitzak dauden eraikin batean». Udala arazo hau tratatzera behartua dagoela zioen proposamenak. Beilatokiak eraikitzeari buruzko ordenantzaz hausnarketa prozesu partehartzailea martxan jartzea ere eskatu zuen.

Alkateak gogorarazi zuen «gaia landu dela udalean, herritarrekiko bileretan, Gobernu batzordean... Arartekoari erantzuna eman zitzaien eta bere gomendioak ez

dituzte konpartitzen, ez baitira bideragarriak». Ordenatzak aldatzeko eta prozesu bat irekitzeko Bilduk egindako proposamenaz, «Udalak Udaltxean tratatu nahi du gaia eta haiek nahi zuten gaia kanpora ateratzea», aipatu zuen. PNVko Santiago Altzurunen erranetan, «ordenantza aldatzea 5-6 hilabete kostako litzateke». UPNko Juan Losak onartu zuen arazo bat badagoela, «900 pertsona aurka daudelako».

## GAZTETXEA

Udalak Kaxerna gaztetxearen gaia lantzeko konpromisoa hartu zuen ahabatez. Bilduk eskatzen zuen Udalak «ez dezala onartu UPN udal taldeko zinegotziak Gaztetxea ixtearekin egindako mehatxurik, ezta helburu berarekin Polizia Foralarengana joizana». Gaztetxeari babesa eskaini eta kontzertu gela erabilgarri izan dadin bere eskuetan dagoena lehenbai-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bakea eta elkarbizitzari buruzko jardunaldiak

Azulanean bakea eraikitzen goiburupen udalak antolatutako jardunaldiak arrakastatsua suertatzen ari dira. Otsailaren 19an Paco Etxeberriak eskaini zuen solasaldia aditzeko tiki gelditu zen Beralandeta, argazkian ageri denez. Otsailaren 26an, Oraina: bakegintzaren ikuspegiak jorratu zituzten Baketikeko Iker Usonek eta Foro Sozialeko Aitziber Blancok. Hirugarren saioa, martxoaren 5koa (19:00etan), ez da hitzaldi bat izanen. Aitzineko bi saioetan landutako gaiak oinarri hartuta, herritarren partaidetzarekin, etorkizunaren inguruan hausnarketa partekatua egiteko ekimena izanen da, *open space* dinamika erabiliz.

lehen egiteko ere eskatzen zion. Udal talde ezberdinetako ordezkariak gaztetxearen eta kulturaren kontra aritzea leporatu zioten UPNkoari. Alkateak erran zuen «egin behar diren lanak Udalak ezin dituela egin, badira bertze udal eraikinak egoera berean». UPNko zinegotziak aipatu zuenez, berak gaztetxea hobetu nahi du, «egoera onean egotea eta lokala Berago gaztedi guztiarentzat izatea». Garazi Taberna, Bilduko zinegotziak Juan Losak gaztetxeari buruz duen iritzia aldatu duela aipatu zuen, «beti erran baitu 'os voy a cerrar el chiringuito'».



### Ba al zenekien...

**Berako bestak antolatzeko lehen bilera irekia martxoaren 18an, 19:30ean eginen dela Beralandetan**



UTZITAKO ARGAZKIA

## 36 bikote bildu zituen Gure Txokoako mus txapelketan lesakarrak garaile

Gure Txokoa elkarteak antolatutako mus txapelketa jokatu zen otsailaren 14an lamotenean. Guztira 36 bikotek parte hartu zuten eta horien artean, Lesakako Jon Otxoteko eta Mattin Gonzalez suertatu ziren txapelkun, finalean Berako Joseba eta Iñigo Martinez anaiei irabazita. Hirugarren posturako lehian, Jon Magirena eta Bikendi Lakosta baztandarrek irabazi zieten Andoni Lasaga eta Bernard Errandonea beratarrei. Gure Txokoako zuzendaritza batzordeko Edurne Pachecok banatu zituen sariak (400 euro irabazleek).

**6**  
SARRERA  
BIKOITZ  
ZOZKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

LESAKAKO  
UDAL KIROLDEGIA  
Antoiu 11, 31770 LESAKA  
Telf: 948 637 400

GIZARTEA → ARALAR ETA PNVREKIN EZADOSTASUNAK

# Udal gobernu taldea utzi du Bilduk

Alkatea «harrtua» dago erabakia legealdia bukatzeko lau hilabete falta direla hartu dutelako

## TTIPI-TTAPA

Bildu Udal Taldeak, Jose Manuel Portu ordezkari duela, ez du segituko Udal Gobernu Batzordeko kide izaten, «ez gaudelako ados bertan ematen diren erabaki garrantzitsuenen gehiengoarekin, ez dugulako uste gure boza kontuan hartzen denik, ezta herritarren eskariak ere, eta Udalak, gehiengan, EAJren bozkei esker funtzionatzen duelako».

Bilduk aurkeztutako idatziak dioenez, «lehen momentutik proposatu zuten Aralar eta Bilduren artean gobernu eratztea, eta legegintzaldian zehar erabakiak modu honetan hartzea. Batetik, ikusita herritarren gehiengoak gobernu ezkeriar eta abertzale baten aldeko hautua egin zuela, eta, bertzetik, EHBilduren proiektua abian jarri eta

horren baitako funtzionamendu baten alde egonik».

Bilduren erranetan, egungo Gobernu Batzordea ez da lan egiteko gune egokia, «erabakiak hartzeko Aralar eta EAJko ordezkariak jarrera oldarkorra agertu baitute hainbatetan ez bakarrik gure taldeko ordezkariarekin, baizik eta errespetu faltaz solastu direla baita herritarrekin ere».

## ALKATEAREN HARRIDURA

Marisol Taberna alkateak bere harridura agertu zuen, Bilduren erabakia legealdia bukatzeko 4 hilabete falta direnean eman delako eta «erabaki hori azaltzeko orduan interes berezia agertzen du Aralar EAJrekin bateratzeko, eta Bildu binomio horretatik urruntzeko».

Alkateak dioenez, «legealdiaren hasieran, batzordeetako ardura eta erakundeetako ordezkariaren banaketa Aralar, EAJ eta Bildu Udal taldeen artean adostu zen, eta horrek eman dio hiru taldeei lanildoak erabakitzeko aukera eta bidea. Horrela udal ordezkari eta talde guztiak izan dute ekimenak, proposamenak eta



UTZITAKO ARGAZKIA

## Inude eta artzai beteranoak ere atera dira inauterietan

Euripean joan dira inauteriak. Aurten, asteburu berean suertatu dira Altzateko frontoian egin behar izan ziren kaldereroak eta inude eta artzaiak. Azken hauetan, 53 bikote bildu ziren, horietako batzuk duela berrogei urte, 1975ean, Victoriano Berasain, Joxe Mari Mehax eta Patxi Retegiren irakaspenei esker ohitura berreskuratu zuten beteranoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Boluntarioen Eguna ospatu dute San Jose Zahar Etxean

Boluntarioek musutruk egiten duten lana eskertzeko omenaldia antolatu zuten otsailaren 19an San Jose Zahar Etxean. Inma Danboriena akordeoilariaren doinuekin dantza egin, bertsoak, eskaintzak, irrintziak eta kalejirak izan zituzten. Ondoren, Zahar Etxeko bizilagunek prestatutako luntx eder baten ondoan bildu ziren adinekoak eta bolondresak.

eskaerak egiteko eta bideratzeko aukera. Gobernu Batzordea hiru taldeetako ordezkariak osatu dute, orain arte».

Legealdian zehar alkateak berdina jokatu omen du Bildu eta EAJ udal taldeekin eta Gobernu Batzordean ere aukera hori izan da. Al-

## Ba al zenekien...

**Leitzako Jeiki Abesbatzak Mozart-en Requiem kantatuko duela martxoaren 8an 13:00etan San Esteban elizan, Kultur Batzordeak antolatuta.**

kateak ez du erraten legealdian «dena ongi egin dugunik, baina erabaki gehienak aho batez hartu dira. Eztabaidak sortu dira, batzuk sutsum-

goak berteak baino. Hortik jarrera oldarkorra eta errespetu falta ondorioztatzea, hagitz iraingarria eta oportunistak da».



**Xirgil**  
psicología  
Jasone Goye  
Altzate 1 - BERA  
Tfnoa: 948 631 462

**elika**  
Dietetika eta elikadura  
**IXIAR ANDUEZA LANZ**  
Dietista-Nutrizionista  
Kolegiatu zenbakia NA221  
Itzea, 6 behe 31780 BERA  
t. 948 631 283 | 645 708 512  
e. elikabera@hotmail.com

**Arturo**  
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria  
Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

# LESAKA

GIZARTEA → OTSAILAREN 21KO BATZARRA

## 75. urteurrena hainbat ekitaldi berezirekin ospatuko du Beti Gaztek

Argazkilaritza atala ere sortu dute eta 142.000 euroko aurrekontua onartu

**Aitor AROTZENA**

Urteko batzar orokorra egin zuen Beti Gaztek otsailaren 21ean eta 142.000 euroko aurrekontua onartzeaz gain, 75. urteurrena ospatzeko antolatuko dituen hainbat ekitaldiren berri eman zuen.

1940ko abuztuaren 9an sortu zen elkarteak 75. urteurrena ospatzen ari da aurten eta horren harira prestatu dituen ekitaldi ugariaren berri eman zuten batzarrean. Gaugerero, ipuin lehia-keta edo San Antonera mendi ateraldia egin dute. Gipuzkoako kostaldean barna hiru ateraldi prestatu dituzte. Lehenbizikoa Lesakatik Hondarribiara egitekoa zuten martxoaren 1ean, eta Hondarribia-Donostia eta Donostia-Zarauz

ibilaldiak eginen dituzte datozen hilabeteetan. Euskal Herriko mendi seinatuak igotzeko asmoa ere badute, Txindoki, Anboto, Aizkorri eta Hiru Erregeen Mahaia, hain zuzen. Urriaren 4an, Nafarroako Mendi Elkarten Eguna antolatuko dute Lesakan, aurten 50 urte betetzen dituen Oberena elkartearekin elkarlanean.

### EKITALDI BEREZIAK

75. urteurrenak soka luzea izanen du aurten eta ekitaldi berezi eta gustagarriak antolatu ditu Beti Gaztek. Aste Santutik aitzinera, futbol txapelketa ezberdinak plantatuko dituzte Mastegin.

Maiatzaren 9an, Musika Banden Alardean bilduko ditu Lesaka, Bera eta Baztango Musika Bandak. Ekainaren 7an, Beti Gazteko jokalaririk ohien topaketa egin nahi dute eta egun horren inguruan, elkarrearen historiari buruzko erakusketa plantatu Harriondoan. Uztailaren



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

### Euriari aurre eginez giro bikaina izan da inauterietan

Euriak zakozarren harat-honatak bakarrik errespetatu zituen, baina halere giro ederra izan da aurten ere inauterietan. Goitarrek eta Fraindarrek baserri auzoak alaitu zituzten beraien musika eta dantzekin. Asteleheneko karrozak ere euriak zapuztu zituen neurri batean, baina jendeak umorez erantzun zuen.

5ean, Erraldoien Topaketa eta herri kirol erakustaldia izanen da eta abuztuaren 9an, elkar-teak 75 urte egiten dituen egunean, Ezpata-dantzarien Eguna eginen dute. 1985ean egin zen bezala, garai ezberdinetako ezpata-dantziariak elkartu nahi dituzte Onin erreka inguruan, 6-7 talde osatuz.

Zuzendaritza batzordean ez da aldaketa handirik izanen eta Jose Luis Sunsundegi segituko du presidente karguan. Hori bai, argazkilaritza atala sortu da lehen aldiz eta Jon Martinez izanen da bokala. Urteroko argazki lehiaketaz gain, ikastaroak eta ateraldiak prestatzeko asmoa azaldu dute. Mendi atalean, berriz, Patxi Oteiza sartu da lehendik zeude-nekin batera.

### 119.261 EUROAK ZORRA AMORTIZATZEKO

## Lapurriturri-Mandobideko lur-eremuak saldu ditu Udalak

**A.A.A.**

Udalak lur eremu bat dauka Irunen, 340.375 metro koadrokoa, San Antongo presa egin ahal izateko Irungo Udalarekin bere garaian eginiko akordioa eta honen egokitzapenak direla eta. Lur horietako basoen ustiapenak etekin ekonomikoak eman dizkio Udalari, baina duela urte batzuk eremu hau Aiako Harriko natur parkearen barnean sartu zen. Ondorioz, basoaren ustiapen ekonomikoa mugatu egin da. Gipuzkoako Diputazio-tik Udalarekin harremanetan jarri ziren eta planteatu zuten eurek lur eremu hori erosteko eta gestioatzeko aukera. 2014ko abenduaren 26ko osoko bilkuran, Bilduren aldeko bozkarekin eta PNVren abstentzioarekin onartu zen lur-eremu hori saltzea. Herritar guztien ondasun batez ari garen heinean, bando baten bidez herritarrei erabaki horren berri eman die Udalak. Salmenta honetatik ateratako dirua, 119.261 euro, «Udalak duen egoera ekonomikoa dela eta, legez, diru hori zuzenean zorra amortizatzeko erabiltzera» derrigortu du. Dena den, udal gobernuaren ustez, «diru hori zorra murrizteko erabilteza ere ez da aukera txarra».

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**BERA**  
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak  
**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak  
**kattagorria**  
lentzeria mertzzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Biurrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

KIROLA → MAIATZAREN 2AN IZANEN DA

## Etxalarko II. Mendi Itzulia martxan da

Aurtengoan, ibilbide berria estreinatuko du Altxatak

### Irune eta Itsaso

Maiatzaren 2an izanen da Etxalarko bigarren mendi itzulia. Prestaketa lanetan buru berri hasia da Altxata eta egun horretan laguntzeko prest dagoena jar dadila Altxatarekin harremanetan. Hurrengo aleetan informazio zehatzagoa emanen da.

### Dorronsoro eta Hicks-en kontzertua

Martxoaren 14ean gaueko 23:30ean Eneko Dorronsoro (Zopilotes Txirriaos taldeko trikitilaria) eta Lukas Hicks

banjo jole Amerikarrak kontzertua eskainiko dute Herriko Ostatuan.

### Birziklatu, sortu! tailerra

Birziklatu, sortu! tailerra material birziklatuak erabiliz egingo da. Asteartero izanen da, kultur etxean, arratsaldeko 5etatik 6etara; doakoa eta haur eta gurasoei irekia.

### Dantzarien egutegiaren zenbaki saritua

Dantzarien egutegiaren zenbaki saritua 51 da. Plazako dendan saldutakoa da eta zenbakia duenak Altxatarekin jarri behar du harremanetan. Saria bi lagunentzako otordu bikaina da.



### Ba al zenekien

Herritar aunitz lurrikara izan zela ohartu ez baziren ere, otsailaren 21 gaueko 00:46ean Ritcher eskalan 1,6 indarreko lurrikara izan zela jakinarazi du Estatuko institutu geografikoak.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN ETA AITZIBER MUGIKA

### Giro ederrean pasa dira inauteriak

Ortzegun gizen egunean eguraldiak lagundu bazuen ere, inauterietako gaineko egunetan eguraldi euritsuek ez zuten besta giroa zapuztu.

## ARANTZA

GIZARTEA → MENDI FEDERATU TXARTELA

# Mendian federatzeko epea ireki du Ekaitza Elkartek

Interesatuak martxoaren 10era arte egiten ahal dute

**Nerea ALTZURI**

Urte batzuk badira Ekaitza Elkartea Mendi Federazioaren barranean dagoela eta geroztik mendian federatu nahi dutenei elkartearen izenean egiteko aukera eskaintzen die. Urteik urtera erabiltzaile kopurua igotzen joan da. Eta aurtien ere interesa duten guztiek izanen dute aukera, elkarteko bazkide izan ala ez.

Lehendik federatuak direnek Caixara joan eta han kuota ordaindu beharko dute. Lehendabiziko aldiz federatu nahi dutenek, berriz, Xabier Zugarramurdiri jakinarazi beharko diote eta horretarako NANren kopia eramane beharko diote.

Behin horieginda, kuota ordaindu beharko dute.

Lehendik federatuak direnek eta lehenbiziko aldiz egin nahi dutenek martxoaren 10era arteko epea izanen dute tramiteak egiteko.

## Sagardotegira ateraldia

Martxoaren 7an sagardotegira ateraldia antolatu dute herritik. Autobusa 12:30ean aterako da aparkalekutik eta 03:00etan bueltatu.

## Korrika

Korrikako prestaketak ere hasiak dira herrian. Hiru kilometro erosi dira Arantzatik eta martxoaren 21ean egokituko zaigu aranztarroi euskararen aldeko lasterketa honetan lasterka egitea. Bertzalde, Korrika Ttikia martxoaren 27ko arratsaldean egingen da.



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

## Zuhaitz landaketa

Aurtien ere zuhaitzak landatzen aritu dira eskolako lagunak, eskolaren eta Udalen ekimenez. Aldi honetan, Azkilarrean aritu dira lanean Lehen Hezkuntzako ikasleak, Gaisenberroko bizkarretik goiti dagoen lursail batean, eta 60 bago landare inguru landatu dituzte.

## Ba al zenekien...

**Bortzirietako Banakako Pilota Txapelketako final batzuk herriko frontoian jokatu direla martxoaren 14an?**

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINA TUAK OSTATUA  
PINTXOAK  
BOKATUK  
TFNoA: 948 630 259 BERA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TIP: 948 625 474

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak  
Dolarea  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa  
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

**BRANDONEA, s.l.**  
BILTEGI 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttapi.ttapa



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumearen Egunean iaz egin zen elkarretaratzea.

GIZARTEA → MARTXOAREN 8AN

## Bortziritako emakumeen mendi martxa herrian aurten

Itzuliaren eta elkarretatzearen ondotik La Villan bazkalduko dute

### TTIPI-TTAPA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Bortziritako emakumeen mendi itzulia egingen dute seigarren aldiz, Bortziritako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin. Al-



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Biltokiko mus eta partxis txapelketen finalak

Igantzi Biltokiko Mus eta Partxis txapelketen finalak jokatu zituzten otsailaren 14an. Musean Ramontxo Retegi eta Seberino Retegi anai bixkiak izan ziren irabazle eta partxisekoan berriz M<sup>a</sup>Josefa Etxeberria eta Felix Goienetxe. Ondotik afaria egin zen elkartean, eta giro ederrean pasatu zuten gaua bertan elkartu ziren 50 lagunek.

di honetan Igantzin egingen dute irteera martxoaren 8an. Igande goizeko 9etan dute hitzordua Udaletxe parean eta

mendi buelta egin ondotik, 13:00etan elkarretaratzea egingen dute leku berean. 14:00etan bazkaria izanen dute La

Villa jatetxean. Bazkarirako aurretik eman behar da izena 948 635036 telefonoan eta 18 euro ordaindu beharko dira.

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

*zalain*  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

*zalain*

**BORTZIRIAK**

25 urte  
eskerrik asko guztioi!!!

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

## KULTURA

BERTSOLARITZA → MARTXOAREN 8AN LESAKAN IZANEN DA HORIETAKO BAT

# Nafarroako Bertsolari txapelketa finalaurrekoetan sartuko da

Eskualdeko 10 bertsolarik gainditu dute lehen koxka eta finalean sartzeko lehiatuko dira

## TTIPI-TTAPA

Final-laurdenetako borts saioak jokatu ondotik, 18 bertsolarik Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hiru finalaurrekoetan kantatuko dute, martxoaren 7an Berriozarren, martxoaren 8an Lesakan eta martxoaren 15ean Burlatan. Eskualdeko hamar bertsolarik segitzen dute oraindik jokoan.

Lehenbiziko bi finalaurrekoak asteburu honetan jokatu dituzte.

Martxoaren 7an, larunbatean 17:30ean Berriozarko Entzunaretoan Jon Barberena elizondarra, Julio Soto, Eneko Fernandez eta Iñigo Olaetxea lesakarrak, Alazne Untxalo iturrendarra eta Sarai Robles ariko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Fuentes 'Itturri' zubietarra eta Eneko Fernandez lesakarra, Lizarran jokatu zen final-laurdenetako saioan lehenbizikoa eta bigarrenak izan ziren eta finalaurrekoetan ariko dira.

Martxoaren 8an, igandean 17:30ean Lesakako Harriondoa Kultur Etxean Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri" iturrendarra, Xabier Terreros lesakarra, Julen Zelaieta beratarra, Amaia Elizagoi onoztarra eta Kotte Plaza iruritarra ariko dira.

Hurrengo asteburuan, martxoaren 15ean,

igandean 17:30ean Burlatako Kultur Etxean

Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Oskar Estanga, Migel Mari Elosegi "Luze" leiztarra, Saioa Alkaiza eta Aritz Saraguetarra ariko dira. Saio honen ondotik jakinen da martxoaren 28an Elizondoko finalean kantatuko duten zortzi bertsolariak zein izanen diren.

Finalaurrekoetarako sarrerak, Berriozarko Ekia ekodendan, Lesakako okindegian eta Burlatako Ostarte tabernan eskuratu daitezke alde aurretik. Internet bidez, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

Txapelketaren gainera informazio guztia eta eguneratua [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian aurkituko duzue.

## EUSKALKIDE

Bertako mintzamolde jatorrak ikasteko saioak antolatu ditu Solaslagunak

## TTIPI-TTAPA

Solaslaguna egitasmotik abiatu den ekimena da *Euskalkide*, tokian-tokiko mintzamolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko espazioak sortu nahi dituena. Solaslagunak antolatu du ekimena, Bertziarik Euskara Mankomunitateak, Malerrekako Mankomunitateak eta Baztango Udalak sustatuta, Berako eta Elizondoko Zahar Etxeen lagundutzarekin. Helburu zabalago batzuetan ere kokatua dago, hizkuntza portaeran eragitea, adinako pertsonekin harremanak sortzea eta ondare inmaterialaren eramaleak diren neurrian, hauen esperientziak ikastea, adibidez. Garizuman izanen da, astean ordu bezet eginen diren lau solasaldiren bitartez, gaika. Berako San Jose Adinekoen Egoitzan martxoaren 10, 17, 24 eta 31n (asteartetan 17:00etan) eta Elizondon Francisco Joaquin Adinekoen Egoitzan martxoaren 12, 18, 26 eta apirilaren 1ean 17:00etan abiatuko da lehenik, baina esperientzia ongi joanez gero bertze udalerrri batzuetara zabalduko da. Izen ematea martxoaren 6a baino lehen egin behar da, 610 920 673 (Xabi) telefonora deituta eta bertan emanen dute informazio gehiago ere.

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
iturgintza • gasa  
kalefakzioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 • BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA





ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

## Bidasoa ibaia gainezka herrian

Otsailaren 25eko euriteen ondorioz ugaldia atera zen herrian. Frontoi atzekaldeko aparkalekua urez bete zen. Urtarrilaren 30ean ere beldurrez egon ginen baina bere hartan gelditu zen dena.



ARGAZKIA: ALIZIA OLAIZOLA

## Julen Juankorena txapelkun

Errekako pilotarien artean jokatu den lau eta erdiko txapelketaren finalak jokatu ziren otsailaren 20an Donezteben. Horien artean Julen Juankorenak txapela ekarri zuen. Julenentzat oso aste gogorra izan zen, astearte horretan aita galdu eta ostiralean finala jokatu behar izan zuelako, gainera 18-10 irabazi zion Aritz Fagoaga ittundarrari. Zorionak Julen eta animo! Argazkian, Pablo Irazoki eta Beñat Iriarte sunbildarrak ere ageri dira. Hauek ez ziren finalera ailegatu baina bai txapelketa polita egin.

GIZARTEA → MARTXOAREN 7 ETA 14AN

# Kantuz aritzeko aukera datozen bi larunbatetan

### Malerreka kantuz eta Kantu Zaharren Egunean

**Maider PETRIRENA**

Martxoaren 7an hirugarren aldiz Sunbillan eginen dute Malerreka kantuz, eguerdian hasita. Gero bazkaria izanen dute abeslari eta musikariek kanpinean.

Martxoaren 14an, berriz, eta laugarren urtez segidan, Ariztigain Kanpinean Kantu Za-

harren Eguna antolatu dute. Bertan egun guztia kantuan pasatzeko aukera izanen da. Soinuan Santxotena izanen dugu, kantuan berriz Angel Mariezkurrena eta Aitor Ibarra. Animatu, txartelak salgai daude Ariztigain kanpinean: bazkaria, afaria eta liburua 48 eurotan.

### BTTan berriz lanera

Martxoaren 8an hasiko dira Arguedasen Caja Ruralek antolatutako BTT martxak. Guztira 7 karrera puntuagarri izanen dituzte. Kimuetan Koldo Herre-rak parte hartuko du eta seniorretan Eneko Herrera anaiak.



### Ba al zenekien...

**Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketan Sunbillatik bi bikote joan zirela. Bikoteetako batek, Jozema eta Korok, Lekeitioko finalean parte hartuko du martxoaren 7an. Zorionak.**



ARGAZKIA: PAKO PASKUAL

## Arkupeak elkartearen urteko besta

Sunbillako Arkupeak elkartekoek beraien urteroko besta ospatu zuten otsailaren 22an Ariztigain kanpinean. Goizeko 11etan hasi zuten Mus txapelketarekin eguna eta ondoren bazkari eder batekin eman zioten segida. Musean 7 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Francisco Errandonea eta Luis Manterola izan ziren (argazkian, Sunbillako Arkupeako lehendakaria den Juan Antonio Ibarrekin), bigarrenak Jose Antonio Apeztegia eta Miguel Anzizar, hirugarrenak Juan Pedro Bertiz eta Jose Miguel Zelaieta eta laugarrenak Santiago Arozamena eta Jose M<sup>a</sup> Arretxea izan ziren.

DONEZTEBE  
948 451 868



## ATE IREKIAK

2015-03-07 | 10:30-13:00

MATRIKULA irekia  
2015-2016

AURREINSKRIPZIOA MARTXOAREN 2tik 18ra  
ASKIN Doneztebeko Udal Haur eskola 0-3 Urte



Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

# DONEZTEBE

GIZARTEA → HAUTESKUNDE TARAKO PROGRAMA ETA ZERRENDA AURKEZTUKO DITU

## Batzar idekia egingen du EH Bilduk martxoaren 13an

Bidasoaldeko eztabaida gunea egingen da hilaren 6an

### Marga ERDOZAIN

EH Bilduk maiatzeko hauteskundetarako prestatu duen programa eta zerrenda aurkeztuko ditu martxoaren 13an (ortzirala), 20:00etan zinemari. Hiru hilabete lanean aritu ondoren koalizio honen itxura eman dio hauteskunde-programari. Lan taldeak bi abiapuntu nagusi izan ditu: herriko talde eragileengandik jasotako ekarpenak (34 eragileekin solastu eta proposamenak jasotzea) eta doneztebar guzietan helarazi zaizkien inkestak ekarpenak. 140 inkesta inguru bildu dira. Horretaz gain, eta programa antolatzeke, 8 azpibatzerdi osatu dira eta bilera idekiak burutzen ari dira martxoaren 2tik 8ra. Bilera ideki horiek helburu bikoitza izan dute: alde batetik, programa osatzea eta bertze aldetik, lantalde iraunkorrak sortzea (osatuko den udalari laguntza emateko).

### ALDIZKARIA

Batzarrak hauteskunde-programari eta zerrendari oniritzia eman ondoren, EH Bilduk behin betiko itxura emanen dio 8 edo 12 orriko aldizkaria kaleratuz eta doneztebar guzietan ailegaraziz.

Martxoaren 6an Baztan-Bidasoako EH



ARGAZKIA: ERREKA KE

### Denboraldiko triatloi taldea aurkeztu du Errekak

Errekak denboraldi honetako triatloi taldea aurkeztu du. Hogeita hamar lagun baino gehiago elkartu dira: Baztan, Bortziarik, Malerreka, baita Bizkaitetik etorritakoak ere. Gehienak gizasemeak badira ere, hiru neska badira. Taldearen helburua modalitate honetan entrenatu, lehiatu eta kirola eginez gozatzea da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Urak gainezka

Otsailaren 25 eta 26an doneztebar guztiek errekei begira pasa genituen egun eta gauak. 100 litro baino gehiago bota zuen. Garajeak, hainbat etxetako sotoak, baratzeak... urak hartu zituen. Ikusgarria izan zen Ezpelura, Ezkurra eta Galbaraildearen indarra, baita Baztanena ere zubian Bidasoarekin bat egitean.

Bilduk eztabaida gunea antolatuko du Doneztebeko erakusketa aretoan eta arratsaldeko 7etatik 9etara zonalde-

ko EH Bilduko hautagaiek burutuko den saioan hainbat gaien inguruko gogoeta egingen dute. Bertan ados-

tutako puntuak ere idatziko dira tokian tokiko aldizkari eta hauteskunde-programarekin batera txertatzeko.

### FLASH

#### Gaztetxoek bertso eskola

11-12 urteko gaztetxoek astelehenero eta 13:45etik 14:45era aukera ezin hobea izanen dute Estitxu Arozaren eskutik bertsolarietan murgiltzeko. Oraingo arte bertsolarietan eskolako jardueraren barne landu dute eta era horretan jarraipena izanen dute. Hezkuntzan azkeneko urtetako murrizketen ondorioz ekimen hauek burutu dira tokian tokiko komunitate eta hainbat udalek egindako diru-ekarpenen esker.

#### Carmen Nieto psikologoak

Adosten gure seme-alabekin hitzaldi taillerria eskainiko du martxoaren 9an (astelehena) DBHko liburutegian 10:00etan. Hitzaldia Mendaur eta Erreka guraso elkarteek antolatu dute guraso formakuntza barrenean.

#### Zinema

Martxoaren 8an zine emanaldia eskainiko du Erreka guraso elkarteak, arratsaldeko 4:30ean *Dolittle doktorea 3*.

#### Xabierraldia

Errekak martxoaren 14an burutuko den atzeraldirako autobusa antolatu du. Irteera goizeko 4:45ean Beratik eta 5etan Doneztebetik izanen da. Iruñean geldituko da, Xabierrera dauden 42 kilometroak egin ahal izateko (buelta autobusean). Interesatuak Titi ostatura joan behar dute edo 948 450271 telefonora deitu. Autobusaren prezioa 18 eurokoa da bazkide ez dinentzat eta 15 euro bazkideentzat.

GIZARTEA → APIRILAREN 26AN FINALA

## Musean aritu dira herriz herri

### Beran delegatu berriak behar dituzte

**Joseba URROTZ**

Urteari hasiera eman diote Arkupeak elkartean poliki-poliki, baina motorrak berotu eta badatoz ekintzak bat bertzearen atzetik. Lehenbiziko jarduera, mus txapelketa, burutu da herriz herri, eta bikote hauek sailkatu dira finale-rako:

**Arantza:** T. Eguzkiagirre-S. Iparragirre, B. Oskoz-P. Errandonea, E. Gonzalez-M. Arozena. **Baztangoiza:** L. Agirre-P. M. Camino, J. A. Ariztia-B. Rekarte, J. Marisco-M. P. Ariztegi. **Bera:** C. Lizasoain-A. Hernandez, J. Bengoetxea-N. Mitxelena, S.

Elosua-F. Pagola. **Doneztebe:** G. Gamio-P. Andueza, A. Etxeberria-V. Etxebeste, S. Lizasoain-J. Ilarregi. **Elizondo:** T. Jaurena-J. Larre, J. M. Mugika-J.A. del Moral, J. Obregozo-M. Gamio. **Eratsun:** M. Elizalde-J. Deskarga, M. Baleztena-J.L. Escudero, P. Beraza-C. Estanca. Etxalar: B. Elizagoien-M. Zelaia, S. Mitxelorena-M. Agirre, J. M. Olagarai-S. Olasagasti. **Igantzi:** E. Eguzkiagirre-A. Txoperena, G. Sein-J. Telletxea, R. Retegi-S. Retegi. **Leitza:** J. Billa-bona-C. Gaztañaga, J. Matxain-I. Huarte, M. Bildarraz-V. Jauregui. **Ornoz:** A. M. Gaztelu (Aniz)-P. Mikelarena (Legasa), J. L. Oskoz-F. Irueta (Almandoz), A. Sarratea- L. M. Elizainzin (Ornoz). **Sunbilla:** F.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebeko mus txapelketan hiru lehenbiziko sailkatuak ageri dira argazkian.

Errandoenea-L. A. Manterota, M. Anzizar- J. A. Apeztegia, J. P. Bertiz-J. M. Zelaia.

Finala Hondarribian jokatu da apirilaren 26an. Egun hau bazkide guztientzat irekita dago, eta ez bakarrik musean ari behar dutenentzat. Izena emateko egunak martxoaren 2, 3 eta 4a dira. Prezioa: 30 euro txapelketa jokatu behar dutenentzat eta 40 euro gainerakoentzat.

### FLASH

#### Beran delegatu berriak behar dira

M<sup>a</sup> Jesus Irigoienek bere lana ederki bete du eta bi delegatu berri behar dira. Anima zaitzete bada, beratarrak, hutsune hau betetzeko.

#### Bidaiak

Xabierrera 105 bazkide joanen dira; Kataluniara, 140; Lacturalera, 23; Sagardotegira, 240. Kontuan eduki behar da sagardotegira joan aurretik Miarritze eta Donibane Lohizune bisitatuko direla eguraldi ona egiten badu, bertzela, zuzenean joanen da.

#### Ikastaroak

Izena eman dutenen kopurua hauxe da: Memoria tailerra, Donezteben 7 eta Oronozen 9. Argazkigintza, Leitza 10, Donezteben 2. Lorategia, 19. Pintura, 4. Yoga, 70. Informatika, 58. Gorputzaren luzaketak, 8. Igeriketa, 11. Aqua Gym 19. Bilerak egiten dira martxoaren 9an hasita.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

# Merkealdia

(azken egunak)

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## ITUREN

GIZARTEA → OTSAILAREN 14 ETA 15EKO ASTEBURUAN

# Joare eta trikiti soinuak Kantabriako Potesen

Joaldunak eta trikitilariak lanean gogor

## Arkaitz MINDEGIA

Iturengo joaldunak eta herriko trikitilariak beraien joare eta trikitixak hartu eta Kantabriako Potes aldean ibili ziren otsailaren 14 eta 15ean. Larunbat goizean Poteseko auzoan eta arratsaldean berriz Potes herrian kalejiran ibili ziren beraien musika zabalduz, bertakoak eta turistak gozarazi nahian. Beraiekin batera Zamorako batzuk ere aritu ziren. Herrira bueltan aipatu digutenez oso esperientzi polita izan da.

## Jostunak dokumentala

Aurtizko Abarun ostatuan hitzordua zuten Ituren, Aurtiz, Zubieta eta Elgorriagako jendeak otsailaren 22an, *Jostunak* dokumentalaren aurkezpena egiteko zelako. Jende uga-

ri bildu zen. Iaz, Gure esku dago eguna baino lehen antolakuntzan bizi izan ziren sentsazio, ilusioak... eta egunean berean giza katean bizi izan zirenak ageri dira ikus-entzunean. Dokumentala ikusi ondoren, aurrera begira ekingo direla ere aipatu zuten, horien artean Ehuntze egunak. Eta nola ez, bukaera eder bat emateko luntxa izan zuten.

## Garbitzailea

Iturengo udalak garbitzaile berria kontratatu du, udaletxea, Pulunpa eskola, herriko kontsultak, Iturengo plaza eta Aurtizko frontoia garbitzeko astean zehar. Belen Bereau da orain herriko garbitzailea.

## Lanbide eta Artisauen azoka

Martxoan sarturik, gogoratu martxoaren 8an ospatuko dela hilaletzeko bigarren igandean ospatzen den lanbide eta artisauen azo-

ka. Ohi bezala, gisa guzietako postuak paratuko dira, bitxiak, ukenduak, jatekoak, apaingarriak... denak gainera, eskuz eginak. Hilabete honetako azoka gainera musikaz lagundua izanen da.

## Nafarroako bertsolari txapelketa

Burutuak dira jadanik Nafarroako bertsolari txapelketako final laurdenak, azkenak otsailaren 21 eta 22an Lizarran eta Lakuntzan. Lizarrako saioan herriko bi bertsolari aritu ziren kantuan, Gorosterrazu anaiak. Saio txukuna egin zuten bi anaiak, sailkapenari begiratuz Iker laugarren postuan geratu zen eta Egoitz berriz seigarren.

Final laurdenekoak burututa puntuazioak begiratu, herriko Alazne Untxalo bakarrik sailkatu da finalaurrekoetarako. Martxoaren 7an arituko da Berriozarren, Julio Soto, Jon Barbe-



ARGAZKIAK: MIREN SEINEK UTZIAK

Iturengo joaldunak, trikitilariak eta hartza, Potesko udaletxe atarian. Beheitian, trikitilariak.

rena, Iñigo Olaetxea, Sarai Robles eta Eneko Fernandezekin batera.

## Pulunpa eskola

Aurreko alean aipatu genuen, otsailaren

26an Zuhaitzaren eguna ospatzeko intentzioa zutela eskolan, baina justu aste horretan izan zen eguraldi txarraren eraginez atzeratzea erabaki zuten.

## APARAN, S.A.

**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



## Lizun

GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



## ola

SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 🍏 250 lagun eserita
- 🍏 Klimatizatua
- 🍏 Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

KULTURA → MARTXOAREN 8AN KANTATUKO DU LESAKAN

## Finalurrekoetan sartu da nagusitasunez 'Itturri'

Lizarrako saioan lehenbizikoa izan zen

**Fermin ETXEKOLONEA**

Zubietar bakarra du gu kantari Nafarroako bertsolari txapelketan, baina orain artean lan polita egiten ari da Ander Fuentes *Itturri*. Lizarran otsailaren 21ean jokaturako final laurdenetako saioan puntuaziorik altuena lortu eta final aurrekoetarako zu-

zenez sailkatzea lortu zuen. Hain zuzen, igande honetan Lesakan kantatuko du, Aimar Karrika, Xabier Terreros, Julen Zelaieta, Amaia Elizagoien eta Kotte Plazarekin batera.

### Karteroaren erretiroa

Berez eratsundarra bada ere Calixto Estanga aritu da orain arte herrian kartero eta orain jubilatua egin da. Egin duen lanarengatik eskerrak eman behar

zaizkio, beti aurpegi alaiarekin bete baitu bere lana. Ongi has dezala bere etapa berria!

### EH Bilduren batzarra

EH Bilduk martxoaren 6an batzarra deitu du herriko estalpean 19:00etan, hauteskundeak heldu direla eta jendea zer asmorekin dabilen ikusteko. Beste herrietan dituzten planteamenduak eta herrian zer egiten ahal den aztertuko dute.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

### Aitor Agesta bikain

Pilotan ederki dabil Aitor Agesta Mendiburu eta ederki erakutsi du Malerrekako txapelketan. Bina-ka nahiz lau eta erdian finalera ailegatu zen eta bi partidak galdu arren, maila polita erakutsi zuen.

## URROZ

GIZARTEA → HIRU HILABETEZ EGIN DITUZTE LANAK

## Araztegia lanean hasi da

**Joseba URROTZ**

Sei hilabeteko epea zuten araztegi berria egiteko, baina azaroan hasi eta hiru hilabetetan lanak akitu eta martxan da. Inaugurazio ofizialik momentuz ez da izan, baina ezin baztertu norbait agertuko denik, hauteskundeak berehala izaki... Araztegiaren ezaugarri dagokionez, Nilsak kontutan hartu zuen herri tiki bat izatea, sistema sendoa izan behar zuela eta argi indarrarik gabe ari behar zuela, mantenimendua guttitzeko.

Hortaz, aukeratu den sistemak, ur zikinak gar-

bitzeko bi dekantazio gune ditu, bakterio-ohartzeta eta hezegune artifiziala. Lehen dekantaziotik pasatu eta gero, ura legarraz betetako ontzi batera ixurtzen da. Hor bakteria geruza bat osatzen da, ura garbitzen duena. Ondotik, bigarren dekantaziora pasatzen da eta azkenik hezegune artifizialera, non landareak haziko diren azkeneko garbaldia emateko urari.

### Ura bor-bor

Euriteek ez ohikoak diren gauzak agertzen dituzte. Badirudi hainbat eremutan lur azpian



ARGAZKIA: J. URROTZ  
Araztegia lanean hasia da.

zuloz betetako armalak daudela, Lesa inguruan bezala. Han jaiotzen da Oizko zentralari ura ematen dion iturria, eta bere inguruan erreka agor bat dago, azkenekoa bezalako euriteekin biztutzen dena. Armal zuloetatik ere iturriak agertu dira, eta argazkian ageri denez, belagiarren erdian ere ura agertzen da behetik goiti.



ARGAZKIA: J. URROTZ  
Belagien erdian ere, ura behetik goiti.

# GIZARTEA

ESKUALDEA → BIZTANLERIA DATUAK


## Azken 55 urteotan %17 igo da bizilagun kopurua

Sei herritan erdia baino gehiago jaitsi da biztanleria

### TTIPI-TTAPA

1960tik honat TTIPI-TTAParen eremuko beheratzi herrik egin dute goiti bizilagun kopuruan: Bera, Doneztebe, Elgorriaga, Igantzi, Ituren, Leitza, Lesaka, Sara eta Senpere. Horiez gain, beheranzko joera utzita, 2000. urteaz geroztik Baztan, Donamaria, Eratsun, Etxalar eta Zubietak ere goranzko joera hartu dute. Gorakada nabarmena izan duten herrien artean, Senpere eta Doneztebe aipa daitezke. Senpereren, 1960an 2.240 bizilagun ziren eta orain 6.039, ia %170 gehiago. Donezteben 785 biztanle izatetik 1.644 izatera pasatu dira 55 urtez, hau da, bikoitza baino gehiago. Leitzaan %85,81, Beran %44,62 eta Saran %32,85 igo da biztanleria.

Beherakada haundia izan duten herriak ere badira: sei herritan azken 55 urteotan erdia baino gehiago jaitsi da bizilagun kopurua. Aranok %69,84 biztanle guttiago ditu gaur egun, Ezkurrak %68 guttiago, Zugarramurdik %57,14 guttiago, Saldiasen 56,46 guttiago, eta Eratsun eta Beintza-Labaienen %56,42 guttiago. Goizuetan ere 1960an baino %44,67 guttiago dira eta Urrozen %43,71 guttiago. Arantza, Zubietta, Oiz eta Sunbillan ere %30 baino gehiago jaitsi da biztanleria 1960tik.



NATURA → EGURALDIA

# Euri-erauntsien ondorioz lur-jauziak izan dira eta errekek gainezka egin dute

## TTIPI-TTAPA

Gogotik egin zuen euria joan den astean, eta horrek bere ondorioak utzi zituen eskualdean. Otsailaren 25ean errekek gainezka egin zuten zenbait tokitan: Arraiozen Baztan errekek gainezka egin zuen, Lesakan Onin errekek, Donezteben Ezpelura errekek, Beran Bidasoa ibaiak... Eta Bidasoa ibaia bera Igantziko eta Etxalarko Bentak lotzen dituen errepide zaharrera ere atera zen, eta ondorioz, zenbait orduz itxita gelditu zen bidea. Hernani eta Goizueta lotzen dituen bidean ere Urumea ibaiak gainezka egin ondolik itxi egin behar izan zuten errepidea.

Lur erortzak ere izan ziren nonahi. Horietako bat Areso eta Leitza arteko NA-170 errepidean. Aspaldiko urteetako lur-jauzi handienetako bat tarteko, errepidea itxi behar izan zuten ordu batzuez.

Estazio meteorologikoak egindako euri jasaren lekuko izan ziren. Berako Larretaginan dagoenean, erraterako, otsailaren 25ean 104 l/m<sup>2</sup> bota zituen, eta Gorramendin 135 l/m<sup>2</sup> neurtu zituzten. Donezteben, 70,2 l/m<sup>2</sup> bota zuen.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO  
Donezteben, Galbaraialde errekek gainezka egindakoan.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL  
Elizondoa gan den urteko uholdeetaz gogoratu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA  
Bidasoa ibaia Beran, Funvera pareko presa ia ez da ageri.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA  
Lesakan, Onin errekek gainezka egin ondolik.



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA  
Aspaldiko urteetako lur-jauzi handienetakoa Leitzaaldean.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE  
Urumea eta errepidea bat eginik Goizuetan.

**ANTZUZELAI**  
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**SMAZIZIOR**  
edariak

T/F: 948 631 557  
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA  
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN  
eta  
JANARIEN  
SALMENTA  
eta  
BANAKETA

# BASABURUA TTIKIA

GIZARTEA → ERATSUNGO INGURU IKUSGARRIA

## Lami Putzo ingurura ailegatzea errazagoa da orain

Aldapa jeisteko burniak eta kablea jarri ditu Julian Azpirozek

**Fernando ETXEBERRIA**

Titok eta Julianek eginda-ko lanari esker, gure inguruko paraje gorde eta interesgarri-netako bat bisitatu daiteke gaur egun. Eratsungo dermioan dago Lami Putzo eta argazkian somatzen denez, bertara ailegatzea zaila eta arriskutsua suertatzen ahal da, baina duela mende bat arte, bazegoen bidezka estu bat, denborarekin galdu zena.


Natura maite zuen herriko maisu batek tokia erakutsi ziren bere ikasleei eta horrela ezagutu zuten beste bizilagunek ere. Julian Azpirozek, lekua eta ur-jauzia bixitatzea interesga-

ria izan zitekeela ikusita, larrak eta sasiak kendu zituen eta, aldi berean, irisgarritasuna hobetzeko burni batzuk eta kablea jarri zituen. Hala ere, tentuz ibili behar da aldapa jeisteko eta kableari ongi heldu. Baina arrisku puntu horrek merezi du, inguru zoragarria eta ikusgarria baita.

Izenari dagokionez, inguruko lamiak putzura joaten omen ziren, urrezko orraziekin bere ile luzea orraztu ondotik bainua hartzera. Zulo Putzo izenarekin ere ezaguna, inguruko kobazulo batean bizi omen zirelako lamiak.

### Sekretario errebeldeak

Udal artxibategian begiratu, udaletxeko bi sekretario errebelderen berri izan dugu eta horien berri zehatzagoa hurrengo alean emanen dugu. Martin Joaquin Goñi Uskarres-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Lami Putzoko ur-jauzi ikusgarria.

koa zen izatez eta sekretario lanean aritu zen 1900. urtetik 1909ra. Juan Madoz Sartagudakoa zen, baina Erriberakoa izanagatik euskal hitzuna zen eta lanpostua lortzeko baldintza hori betetzen zuenez,

1928an ailegatu zen Ezkurrara. Organujolea ere bazen. Biak soldata eta lanpostua kentzearekin zigortu zituzten, baina lehenbizikoak epaiketa irabazi zuten. Hurrengo alean ezagutuko duzue istorioa.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Ezkurrako jubilatuen bazkaria

Ezkurrako hemeretzi jubilatuk beraien urteko festa ospatu zuten otsailaren 15ean. Eguerdian elizan bildu ziren, joan den urtean hildako kideak gogoratzeko eta gero Barrankan bazkari ederra izan zuten. Bazkalondoan, TTIPI-TTAPARAKO argazkia atera nahi izan zuten.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Eratsungo jubilatuk ere gustora

Otsailaren 22an, Eratsungo 18 jubilatuk egin zuten bere festa. Hauek ere Ezkurrara hurbildu ziren bazkaltzera, herrian meza entzun eta gero. Bazkalondoan mus txapelketa jokatu zuten. Migeltxo eta Javier izan ziren txapeldun, Baleztena eta Eskudero bigarren, Pello eta Calixto hirugarren eta Luis eta Pakito laugarren.



GIZARTEA → GAZTE ASANBLADAK

## Bertso afaria antolatu dute ostiralerako

Iker Zubeldia eta Fredi Paya ariko dira Umore Onan

### TTIPI-TTAPA

Bertso afaria antolatu du Gazte Asanbladak martxoaren 6rako. Iker Zubeldiak eta Fredi Payak kantatuko dute. Txartelak Amaiarenean daude salgai 15 eurotan eta afaria ostiralean 22:00etan izanen da Umore Onan.

### Reiki ikastaroa

Amia Artze Reiki mai-

suak, lehenengo mailako reiki ikastaroa eskainiko dute martxoaren 7 eta 8an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 14:00etara udaletxeko ganbaran. Izen ematea 699797388 telefonoan egin behar da.

### Behi eta ardien subentzioa

Ardi eta behi edo txorren subentzioa eskatzeko lehenbizi udaletan ziurtagiria eskatu behar da. Martxoaren 16ra arte zabalik dago



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

### Giro bikaina izan da aurten ere inauterietan

Igandean gaztetxoek zahagi dantza eta astelehenean eskolako desfilea (Brasil gaitzat hartuta) izan ziren. Euriaren ondorioz, eskolako frontoian egin behar izan zuten hau. Ohi bezala, mozorroek astelehenean baserrietan eta asteartean herrian barna egin zuten itzulia eta zahagi dantza ere dantzatu zuten, hainbat kuadrilek beraien mozorroak kaleratzen zituzten bitartean.

epea. Eskaerak egite-rakoan, ordenantza berriaren arabera, honako dokumentazioa aurkeztu behar da: errolda agiria, 3 urteko antzintasunarekin; herrian, ur-

tean gutxienez 9 hila-betez bizi denaren zinpeko aitortpena; Udalarekin zorrik ez duenaren aitortpena; bakoitzak, jabetzan edo alokairuan, dituen lurren

zinpeko aitortpena; azinda kopuruaren ziurtagiria eta txosten sanitarioa; eta nagusiki abeltzaintzan edo nekazaritzan aritzen denaren ziurtagiria.

## ARESO

OSPAKIZUNAK → PELIKULA ETA AFARIA EMAKUMEEN OMENEZ

## Emakumeen eguneko ekitaldiak martxoaren 13an

Hodei magoak emanaldia eskainiko du martxoaren 14an

### Juana Mari SAIZAR

Martxoaren 8a iritsi zaigu eta Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko beste urte batez ekintzak egingo dira herrian. Aurtengoan martxoaren 13an ospatuko dugu, beti bezala pelikula bat ikusiz eta ondoren afariarekin.

Aurten "Loreak" filma izango da ikusgai udaletxeko erabilera anitzeko gelan 19:30etan. Pelikula hau Goya sarietarako izendatua ere egon zen eta herrian bertan ikusteko aukera izango dugu. Ondoren afari autogestionatua izango dugu eta aurten berri-kuntza bezala Leitza eta Aresoko emakumeek batera afalduko dugu. Animatu, bakoitzak zer bait ekarri eta emakumeen eguna behar bezala ospatu dezagun.

### Korrika kulturala martxoaren 14an

Korrika kulturala egingo da herrian datorren astean. Hodei magoaren bisita izanen dugu larunbatean 17:30etatik aurrera. Eguraldi ona bada plazan izango da emanaldia eta txarra bada udaletxeko erabilera anitzeko gelan izango da. Herritar guztiei zuzendatuta egongo da saioa eta ea bada Korrikarako giroten hasten garen, ez da asko falta eta!



UTZITAKO ARGAZKIA

### Urak bere indarra erakutsi du

Elur kontuak izan genituen aurreko batean eta oraingoan berriz, euriak eman digu hizketagaita. Otsailaren 25 eta 26an botatuko etengabeko euri jasek erreka handitu zuten eta urek gainezka egin zuten herriko hainbat puntutan.

## LEITZA

OSPAKIZUNAK → ERAKUSKETA, DOKUMENTALA, BIZIKLETA MARTXA

# Emakumeen egunaren harira ekitaldi ugari datozen egunetan

Berdintasun batzordeak eta Leitzako Emakumeen Asanbladak antolatuta

JM BARRIOLA

Emakumeen eguna ospatzeko ekitaldi ugari izanen dira datozen egunetan. Gizarte Zerbitzuetako berdintasun batzordeak antolatu du egitarauaren zati bat. Hasteko, martxoaren 1ean, Donostian egin zen **Liatoia**ren 26. edizioan parte hartzeko deia egin zuten eta eskualdeko emakume bat baino gehiago aritu ziren korrika bertan. Martxoaren 8an Iruñean deitutako **manifestazio**arekin ere bat egin dute, Leitzako Emakumeen Asanbladak bezalaxe, eta herritarrei 12:00etan bertara joateko deia egin diete. Martxoaren 11an izanen da hurrengo hitzordua, *Yach'Il emakumeen etxe komunitarioa (Txiapas)* proiektuari buruzko **erakusketari** hasiera emanen dion **hitzaldia** antolatu dute Atekabeltzen 18:30ean eta segidan **bideo emanaldia**. Martxoaren 30a bitarte *Mayar emakumeak. Duintasunezko koloreak* izeneko erakusketa ere



UTZITAKO ARGAZKIA

## Stock azoka antolatu dute martxoaren 7rako

Kaxkabeltza, herriko komertzianteen elkarteak stock azoka eginen du martxoaren 7an. Egun horretan herriko plazan, 12 komertzioetako produktuak eskainiko dituzte egun osoan zehar. Goizeko 10etan hasi eta iluntzeko 8ak arte iraungo du azokak. Ez da herrian stock azoka antolatzen den aurreneko aldia, irudian ikusten denez, denetarik izaten da aukeran. Komertzianteeek produktuak kalera aterako dituzte, eskaintza bereziekin eta erosleek plazako giro onaz gozatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko balio du ekimenak.

ikusgai egonen da. Martxoaren 22an *Loreak filma* eskainiko dute zinean 19:30etan.

Martxoaren 8rako Leitzako Emakumeen Asanbaldak berriz, Arrakala dokumentalaren aurkezpen eta proiektzioa antolatu du martxoaren 5ean 19:00etatik aurrera Atekabeltzen. Martxoaren 7an 12:00etan bizikleta martxa feminista eginen da plazatik hasi eta herritik barrena eta ondoren poteo morea. Bukatzeko martxoaren 13an Areson antolatu den afarira joateko deia ere egin dute.

## MARTXOAREN 13 ETA 14AN BANAKETA

### Errigora Nafarroako olioaren aldeko kanpaina

#### TTIPI-TTAPA

Udazkeneko saskien kanpaina arrakastatsua- ren ondoren, berriz jarri dira elkalanean LeitzEKO kontsumo taldea eta Errigora ekimena. Bertako produktuak eguneroko kontsumo ohiture- tara ekartzeko helburuarekin, elikadura burujab- etza bultzatu, auzolana antolatu eta euskal nekazari eta ekoizleei laguntzeko asmoz Nafar hegoaldeko olio ekarriko dute Leitzara.

Eskaerak egiteko aukera egon da martxoaren 4ra arte herriko hainbat komertzio eta taber- netan zein internet bidez. Eta hurrengo asteko ostegun eta ostiralean (martxoak 12 eta 13) Kar- rapeko tabernan egingo da eskatutako olioaren banaketa, 19:00tik 20:00ra bi egunetan.

## FLASH

**Haur eskolan aurrematrikulazioa**  
Martxoaren 17an bukatuko da Itzaira haur eskolan 0-3 urte arteko haurren aurrematrikula egiteko epea. Goizeko 08:30etik 09:30ra egin liteke eskolan bertan. Zalan- tzak argitzeko, deitu 948510961 telefono- ra.

## Sexualitatea familiar lantzen

Denok bat Guraso El- karteak antolatuta *Sexualitatea familiar nola landu* gaiaz solas- tuko dute martxoaren 10 eta 17an. Erleta es- kolan bilduko dira 15:00etatik 16:30eta- ra. Besteak beste: nes- ka eta mutilen arteko harremanak nolakoak diren, adin egokiak, seme alabekin sexualita- tez hitzegitea, adin ba- koitzean zer komeni den aipatzea...landu- ko dituzte.

## Udala Goienerreko kide

Leitzako Udalak ener- gia berriztagarrien al- deko apustua egiten jarraitzen du. Horre- gatik Goiener energia kooperatibarekin harre- mana estutu du eta Udal eraikinetan gas- tatzen den energia guztia Goiener koope- ratibari hartuko dio. Modu honetan kons- sumitutako indarra energia berriztagarrie- kin sortutakoa izanen da, eredu hori babes- tu eta bultzatuz.

**10 SARRERA**  
ZOZKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

IGANTZI NAFARROA  
Tel +34 948 928 922  
www.irrisarriland.es

GIZARTEA → MARTXOAREN 7AN

# Gazteluaren berreskurapena gizarteratzeko ekitaldia egingen dute Amaiurren

Mendi buelta, ekitaldia, herri bazkaria eta kantaldia izanen dituzte

**Juana Mari SAIZAR**

Ekitaldi berri bat egingen dute Amaiurren martxoaren 7an, larunbatean, gazteluaren berreskurapenean egin den lana gizarteratzeko, *Harritik herrira* izenburuarekin. Ekitaldia Udalbiltza, Baztango Udala eta Amaiurko herriaren artean antolatatu

dute. Goizeko 10etan mendi buelta izanen da, eguerdian inaugurazio ekitaldia gazteluan, eta ondotik herri bazkaria frontoia. Ondoren kantaldia ere izanen da. Bazkarirako txartelak, Amaiurko Santxonea ostatuan, Baztango udaletxean, Elizondoko Intza ostatuan eta Iruñako Katakraken salgai daude martxoaren 4a arte. Aparkaleku gutti izanen direnez, autoak ongi betetzeko deia egin dute antolatzaileek.

Bezperan, martxoaren 6an, 19:00etan



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ekonomiari buruzko saioak Alejandro Arizkunen eskutik

Hazitik Hozie Baztango tokiko garapenerako elkarte herritarrak antolatutako ekonomia mintegiaren lehen dabiliziko bi saioak egin dituzte otsailaren 21 eta 28an. Alejandro Arizkun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea zientzia ekonomikoaren oinarritzko kontzeptuei buruz solastatu zen. Bertze gauzen artean, edozein zientziak errealitatearen osotasuna hartzeko duen ezintasuna aipatu zuen eta horregatik zientzia ekonomikoak ere, bere teoria eta azterketetan errealitatea sinplifikatzeko erramintak erabiltzen dituela. Hala, ideologiaren edo ikuspegiaren arabera sinplifikazio horrek interesgarriak izan daitezkeen hainbat kontu baztertzea dakar. Martxoaren 7an eskainiko du hondar solasaldia Alejandro Arizkunek, 11:00etatik 13:00etarat Arizkunenean, *Hazkunde ekonomikoari buruz alternatibarik al dago?* galderari erantzuna ematen saiatuz.

Amaiurko Otsondo Barride elkartearen solasaldia eskainiko dute Amaia Nausia Pimoulierrek eta Aranzadi elkartearen Juantxo Agirre Mauleonek.

## PROIEKTU DINAMIZATZAILEA DELA USTE DU

### Baztango Geroa Baik bere babesia eman dio Aroztegiako jauregiko proiektuari

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Geroa Baik Aroztegia Jauregiko Proiektua, proiektu garrantzitsua, dinamizatzailea eta eskaintza turistikoa bultzatu eta anizten duela defendatu du, eskualdean azken urteotan modu garrantzitsuan hazi den sektore batetan alegia, eta sektorearen gainontzekoei onurak ekar diezaikeena, nazioarteko dimentsioa emanaz gainera. Ikuspuntu turistikotik, Baztan jomuga ezagutarazteko oso baliogarria izanen da, ziurtatu du koalizioak.

Era berean, Baztango Geroa Baik ohartarazi du «proiektuaren inguruan ematen ari diren ziurtapeanak, hirigintza *pelotazo* bat dela esanez, ez direla egia». «Bailaran jar-

duera sortzeko inbertsio handiko proiektua da, hori gertatzeko hain zaila den momentu honetan gure babes osoa merezi duena» azpimarratu du koalizioak.

Geroa Bairen arabera, «udal kutxan diru-sartzeak izango duen eragin ekonomikoa, zerbitzuen dinamizazioan bai eta enpresa laguntzaile eta inbertsio apartak ekarriko dituen lanpostu berrien sortzean, aukera handia da Baztanentzat».

Zenbait ordezkari proiektuari egindako kritikek ez omen dute «proiektuak duen babes soziala islatzen, zilegi denez, ez eta eskaintzen duen garapen, enplegu eta aberastasunak dakarren eragin positiboa ere» akitu du koalizioak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Zangotxo aurkeztu dute inauterietan

Inauteetako ortziralean, urtero bezala, Baztan Ikastolak eta Elizondoko San Francisco Javier eskolak desfilea egin zuten. Azken urteetan bezala, euskal inautea izan zen gaia... txatxoak, damak, mairuak, ziripot, zaldiko, orgak... Tartean, hala ere, *Zangotxo* Nafarroa Oinez 2015eko maskola ezagutzera eman zuten. Ikastolak antolatzen dituen ekintza guzietan tartean izanen da, *Erabili eta ibili nahi adina, inoiz ez da nekatzen gure oina* goiburupen.

## BAZTAN

GIZARTEA → MARTXOAN ZECHAR

# Emakumearen Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Bertsolaritzaren sekretuak ikuskizuna igandean

## TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekitaldi egingen dira egunotan, Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatuta.

Martxoaren 6an, ortziral arratsaldeko 7etan, Amaiurko Otsondo Barride elkarteak bi hitzaldi antolatu dituzte Amaiurko herriak udalbiltzak eta Baztango Udalak. Lehenik, *Emakumeen adoktrinamendua historian zehar: 1512, 1936* hitzaldia eskainiko du Amaia Nausia Pimouli-errek. Aranzadi elkarte-ko Juantxo Agirre Maulleon Amaiurko Gazte-luaz ariko da.

Martxoaren 8an, *Bertsolaritzaren sekretuak, ixilduriko emaku-*

*meen historia* ikuskizuna eskainiko dute 19:00etan Arizkunenean. Jokin Labaien eta Oskar Estanga bertsolariek, Hodei Unzueta antzezlean eta Idoia Noble akordeolariak parte hartuko dute emaldian.

Martxoaren 10ean, ipuin ez sexisten kontaketa saioa egingen da 17:30ean Elizondoko liburategian. Zoila Berastegi Mariñelarena ipuin kontalariak "Mundu bartearen mila mundu" kontatuko du.

Martxoaren 18an, Emaginek aurkeztuta, *Festa dezagun gaurdantik geroa* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia izanen dira 19:00etan Arizkunenean.

Hilabete osoan Berdintasun Txokoa izanen da Elizondoko liburategian, *Jantzi itzazu betaurreko moreak!* goiburuean.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Erretiroa hartu duen Juan Mari Ameztoui omenalditxo

Juan Maria Ameztoui elbetearren jubilarzioa dela eta Udalak eskertu dio palis-ta gisa 27 urtez herriarendako egindako lanak. Hori dela-eta, otsailaren 13an omenalditxo egin zioten Balleko Etxean eta oroigarri bat eman zioten, bere zerbitzuak eskertuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Fruta-arbolak kimaketa ikastaroan 30 lagun

Bigarren urtez segidan fruta-arbolak kimatzeko ikastaroa egin zen, Udalak antolatuta. Xabi Akizuren eskutik ikastaroak alderdi teoriko bat zuen (Arizkunenean) eta bertzea praktikoa (Arizkungo Dutarian). Eguraldia sobera lagun izan ez bazuten ere denera bi egunetan banaturik hogeita hamar herritarrek parte hartu zuten. Fruta-arbolak inautesteko tekniken ezagutzak, bertze hainbat ezagutzekin batera, bertako baliabideetan oinarrituriko produkzio aukeretan herritarrek trebatzeko aukera ematen du. Tokiko garapenean oinarri diren bertako herritarren prestaketa bulkatuz eta natur-baliabideen zentzuzko erabilera sustatuz.

**ORBELA**  
SENDERIARIA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**nahia**  
centro de psicoterapia zentrua

- Dolua
- Antsietatea
- Autoestimazio eza
- Familia edota bikote arazoak
- Hitzaldiak eta tailerrak

Erlategi plaza, 8 behea | Elizondo  
626 021 643  
nahiapsiko@gmail.com

**MENDIALDE**  
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR  
www.mendialdea.com

**ARMUA** JATETXEA

T. 948 599 131  
Zugarramurdi errep. 3.km  
URDAZUBI

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatu

Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

GIZARTEA → MARTXOAREN 7AN

## Lan Gaua mendi ibilaldia egingen dute Erratzun larunbatean

Xabier  
Rekarteren  
eskutik

### TTIPI-TTAPA

Lan Gauaren 3. edizioa burutuko da Erratzun martxoaren 7an.

Bidasoako Kontrabandistak Ibilbidea proiektuaren barrenean ([www.kontrabandistak.com](http://www.kontrabandistak.com)), diru irabazi asmorik gabe eta XX. mende erdialdeko kontrabandoaren historia ezagutzera eman nahi duen egitasmoa da Lan Gaua: kontrabandista ohi batek gidatutako eta azaldutako 11 kilometroko gaueko mendi ibilaldia, 3 ordu eta erdiz.

Etxalarko eta Oiarzungo edizio arrakastatsuen ondoren, aurtengoa Erratzun izanen da eta ibilbidea herritik Elortako lepoko mugara izanen da, beti bezala martxoko ilargi betearen inguruan. Aurtengo bitxikeria: protagonista Xabier Rekartere izanen da, 38 urteko erratzuarra, 13 urterekin aretxe pasoaen hasi zena. Lan horretan Etxalarko Xanti Elizagoiein izanen du lagun, lehenengo edizioaren protagonista. Larunbatean 19:30ean egingo dute hitzordua frontonean eta 20:00etan hasiko da ibilaldia. Izenemateko 7 euro ordaindu beharko da. Informazio gehiago 948 450014 edo 659 477396 telefonoetan (Mikel Albisu).



UTZITAKO ARGAZKIA  
Xanti Elizagoien etxalartarra eta Xabier Rekartere erratzuarra.



## Elizondo BHI

Diputazio etorbidea z/g · 31700 · ELIZONDO  
T. 948 581 805 · F. 948 581 840  
[ieselizo@educacion.navarra.es](mailto:ieselizo@educacion.navarra.es)  
<http://ieselizondobhi.educacion.navarra.es>

Lanbide Heziketa zikloak: erdi eta goi mailakoak  
Administrazioa eta Ekoizpen Mekanikoa  
Oinarrizko Lanbide Heziketa:  
Administrazio zerbitzuak eta Fabrikazioa eta Muntatze  
Heziketa berezia: LHKP egokituak  
Goi mailarako sarrera frogarako prestakuntza ikastaroa

**Idoia ETXEPARE** → Elizondo LH BHIko ikasle ohia



**Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako tituluduna.**  
Berako Ugaldea asesorian lan egiten du.

**Zergatik aukeratu zenuen Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Heziketa Zikloa ELIZONDO LH BHI n egitea?**

Batxilerraren tekniko industrialra egin eta gero, ez nekien zer ikasi eta unibertsitatean probatu nuen Ingeniaritza Teknikoa. 3 urtez egon nintzen baina ez nuen gaitasunik, lanbide heziketa probatu nuen, duen alde praktikoa. Elizondoko eskola aukeratu nuen hurbiltasunagatik eta euskaraz zelako. Herriko giroa ere gehiago gustatzen zait hirikoa baino.

**Institutuan egon zinen bitartean zer moduko esperientzia izan zenuen?**

Ikasle gutxi ginen taldean eta hagitz gustora egon nintzen. Giro herrikoa eta jende arras irekia. Laguntasun handia, eta ikaskide eta irakasleekin hagitz ongi.

**Ikasketak bukatzeko, enpresetan lantokiko prestakuntza (praktikak) egiten aritu zinen. Praktiketara zer moduz aritu zinen? Eta ondotik?**

Lan-praktikak bertako enpresa batean egin nituen eta gustora egon nintzen. Elizondoko eskolan aunitz gustatu zitzaidan Enpresa simulatuko bulegoa. Bertan, enpresako lanak simulatzen dira. Praktikak ailegatzen direnerako aunitz laguntzen du.

2005ean bukatu nituen ikasketak. Gero Behobian egon nintzen bulego batean, korreoa banatzen eta administrari lanetan. 2006an, Ugaldea asesorian hasi nintzen, eta hemen nago orduz geroztik.

**Zure esperientzia ikusita, bere ibilbidea planteatzen ari diren ikasleei, ELIZONDO LH BHIra Administrazioa ikastera etortzea gomendatuko zenieke?**

Bai! Giro ona, euskalduna eta herrikoa delako. Enpresa simulatua hagitz garrantzitsua ikusten dut eta baita enpresa praktikak. Administrazioa ikasketak bukatuta gustoko duen enpresa edo erakundera jotzen ahal du.

**Manex MITXELENA** → Elizondo LH BHIko ikasle ohia



**laz, EMHZ Mekanizazio zikloa bukatu zuen Aurten Toki Ona BHI n GMHZ Mantenua egiten jarraitzen du.**

**Zergatik aukeratu zenuen Erdi Mailako Heziketa Zikloa Mekanizazioan egitea ELIZONDO LH BHI n?**

Elizondoko Laboralera joatea gehienbat lagunek eta ezagunek aholkatuta erabaki nuen. Beti gustatu izan zait burdinarekin lanean aritzea, eta horrek ere bultzatu ninduen erabakia hartzerantz.

**Institutuan egon zinen bitartean, zer moduko esperientzia izan zenuen?**

Egia erran, orduarte ez nintzen inoiz eskolara kontent joaten, baina Elizondon hasi ondotik kontentua go joaten nintzen! Ikaskideen artean giro ona egoten zen beti eta irakasleekin ere gustora ibili ginen. Gainera, gustoko lana nuen, han lakatu nuen eskolan aritu nintzen bitartean.

**Ikasketak bukatzeko, enpresetan lantokiko prestakuntza (praktikak) egiten aritu zinen. Praktiketara zer moduz aritu zinen? Eta ondotik?**

Praktiketara hasi nintzen uste nuen lan munduan sartzea kostatuko zitzaidalako, baina lankide onak topatu nituen, eta horrek lagundu zidan gauza berriak ikasteko! Praktikak bukatzerakoan, nere nagusia pozik gelditu zenaren sententzia daukat, udan lanean aritzeko hartu bait ninduen! Uda bukatu zenean, lanean segitzea eskaini zidan, baina ikasketekin jarraitzea erabaki nuen, eta hortan ari naiz aurten.

**Zure esperientzia ikusita eta lan mundua dagoen bezala, DBH bukatzen ari direnei eta beraien etorkizunaz arduratuak daudenei, ELIZONDO LH BHIra Mekanizazioa ikastera etortzea gomendatuko zenieke?**

Bai! Arlo industrialean erdi maila egiteko aukera ezin hobea da!! Aunitz ikasten da eta lan mundua nola dagoen ikusita, ikasketak jarraitzea gomendatuko nien!

# BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 19AN

## Errekari eta uholdeei buruz eztabaida emankorra

Uholde arriskuen plana egiteko diru-saila prestatu dute udal aurrekontuetan

### TTIPI-TTAPA

*Baztan erreka eta uholdeak* izenburuko mahai-ingurua egin zen otsailaren 19an, Udalak antolatuta. Batzar aretoa herritarrez bete zen eta mahai-inguruan hainbat adituk parte hartu zuten: Kantauri isurialdeko Uren Konfederazioko Felipe Román eta Noemí López, Nafarroako Gobernuo Uren zerbitzuko César Pérez, Camino Jaso biologoa eta erreka nahiz

ur aferetan aditua, Julia Ibarra Uraren kultura berri bat elkarteko kidea eta Iñaki Antiguedad EHUko Hidrogeologiako katedradunak.

Konfederazioko Felipe Romanek uztailaren 4ko uberroaren deskribapena egin zuen. Segidan, Noemí López uholde arriskuen kudeaketa planez aritu zen. Baztan errekarri buruz uholde arriskua duen tartea Elbeten hasten dela eta Oronozen akitzen nabarmendu zuen. Europako zuzentarauei jarraikiz, 2015erako uholdeen arriskuen kudeaketa planak idatzi behar direla jakinarazi zuen. Eztabaidaren akaberan Garbiñe Elizegi alkateak jakinarazi zuenez, Udalak aurtengo



UTZITAKO ARGAZKIA

Jendeak arretaz segitu zuen errekarri eta uholdeei buruzko foroa.

aurrekontuetan Baztango uholde arriskuen plana egiteko diru-saila prestatu du.

Nafarroako Gobernuo César Pérez teknikariak uztailakoa tanta hotz bat izan zela eta gainera, Baztan haranak dituen ezaugarrietatik ekaitzak bertan gertatzeko joera dagoela erran zuen. Elizondon bortz orduz segidan 103 mm/s-ko euri kopurua eginda uholdeak gertatzen direla azpimarratu zuen. Uztailaren 4an 12 orduz segidan egin zuen eta 120 mm/s-ko.

Camino Jaso biologoak errekek beren funtzionamenduak dituztela jakinarazi zuen eta horiek ezagutu eta, ahal den neurrian, errespetatu behar direla.

Julia Ibarrek herritarrek zer nolako erreka nahi dugun erabaki behar dugula eta horren araberrako neurriak hartu beharko direla azaldu zuen. Uholdeen ondotik premiak estuturik berehalako eskuhartzeak egiten direla aipatu zuen: lubetak, karrak-tzeak... Baina aldika premiak agindurikoa egitea ez da garrantzitsua dena egitea.

Iñaki Antiguedadek 0 arriskurik ez dagoela erran zuen, baina arriskuak ttipitu daitezkeela. Klima aldaketarengatik erauntsiak gero eta gehiago eta zakarragoak direla erran zuen eta uholdeak kudeatzeko beharrezkoa dela arrosoan esku hartzea, ez errekan bakarrik.

Ondoko eztabaidan herritarrek egindako galderari erantzuteaz gain, uholdeen kalteak ttipitzeko egin daitezkeen esku hartzeaz ere aritu ziren eta orduan Txokotoko presaren eta Giltxaurdiko zubiaren kontua atera zen, Elbeteko Perreketeko zubia, Giltxaurdiko harri-pilaketak, eta bertze.

Uholdeetarako Madriletik eta Nafarroako Gobernutik agindutako sosa ez direla ailegatu salatu zuen Udalak.

Gaia konplexua dela ikusi zen eta ikuspuntu desberdinak agerian gelditu ziren. Eztabaida foro hau aitzinago errekarri inguruan egin beharko den parte-hartze prozesu baten hasiera bertzerik ez da izan.

### FLASH

#### Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Txo, Mikmak txikia* ikuskizuna aurkeztuko dute martxoaren 8an, 16:30ean Lur aretoan. Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak antolatutako emanaldira sartzeko 6 euro ordaindu beharko da. Txartelak salgai daude Elizondoko Intza, Axular eta Fantxiken, Doneztebeko Ekaitzan, Lesakako Haizean, Berako Errekalden eta egun berean takillan.

#### Ardoaine, Añoar haundi eta Tellarin

Maiatzean eginen den Mutildantza Eguna prestatzeko aldera *Ardoaine, Añoar haundi eta Tellarin* ikastaroa antolatu du Jo ala Jo Taldeko Baztandarrak dantza sailak. Ortziraletan 19:00etan Arizkunenean.

#### Juan Luis Torralbaren margo erakusketa

Martxoaren 18tik apirilaren 5era ikusgai izanen da Elizondoko Arizkunenean.

### MARTXOAREN 29RA BITARTE

## Bazkide kanpainari ekin dio Menditarrak BRT errugbi taldeak

### TTIPI-TTAPA

Azken bi urteotan bezala, BRT Menditarrak taldeak bazkideak bereganatzeko lanarekin segitzen du eta bertan parte hartu, lagundu eta elkarlanean dabilzan guztiak eskertu nahi ditu. Aurten beranduago bada ere, bazkide txartelaren eguneratzeko eta proiektu hontara gehitu nahi duen oro erakartzeko ordua iritsi da. Bazkide txartela 2015 urterako baliagarria izanen da eta hiru bazkide mota daude (babesle, laguna eta txiki) bakoitza bere prezio eta onurekin.

2014an ere bazkide zirenek eta bazkide izaten segitu nahi dutenek BRT-ri adierazi beharko diote (brt@baztanrt.com helbidera erantzunez, whatsapp edo sms bidez 619196780 telefonoan...) eta berehala jasoko dute txartel berria. Harpidetza utzi nahi dutenek ere bide beretik adierazi beharko dute. Berritzeko epea martxoaren 29ra arte zabalik izanen da.

Bazkide berriek galdetegia bete eta emailez edo whatsappz igorri beharko dute eta laister jasoko dute bere bazkide txartela.

## BAZTAN

## ZUGARRAMURDI

**BATZAR NAGUSIAK**  
Guardia Zibilak eraso sexista baten biktima jazarri duela salatu du

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Batzar Nagusiak ahobatez onartu du Bildu aurkeztutako mozioa. Idatzian biltzen denez, 2014ko urriaren 16an, Lekarozko kiroldegian, eraso sexista baten biktima izan den herritar batek Elizondoko kuarteleko guardia zibil batzuen jazarpena jasari behar izan zuen. Guardia Zibiletako bat bere erasotzailearen aita izanik, probokazioak akusatuta eta atxilotuko zutela mehatxatu zuten. Hau dena erasotzailea metro gutxietara zegoela eta jakinda bere kontrako urrutze agindua indarrean zeukala. Gertaeren larritasuna ikusita, «herritarrek babesten egon beharko luketen horiek, justu kontrakoa egiten ari direla», Batzar Nagusiak gertakariak salatu eta errefusatu ditu. Horretaz gain, Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari eta Nafarroako Gobernuari indarkeri matxistaren biktimen segurtasuna behingoz bermatu dezatela eta gertakari hauen egileak bere karguetatik baztertuak izan daitezela eskatu du.

**OSPAKIZUNAK** → ALDAKETAK IZAN DITU AZKEN URTEETAN

# Koloretsu, umorez eta alai gan zaizkigu ihauteak

**Eskoletan otsailaren 13an ospatu zuten**

**Margari eta Koro**

Bertze behin ere, koloretsu eta alai gan zaizkigu ihauteak. Eskoletan otsailaren 13an ospatu zuten, aurten Zugarramurdin (bi herrietan txandaka ibiltzen baitire). Egun horretan 49 haur elkartu ziren goizean kale-jira bat egiteko. Ondotik eskolan berean bazkari bat eskeini zuten, eta finitzeko, museoan bi filma ikusteko aukera izan zuten.

Herrian berriz, larunbata eta igandean ospatu zen. Larunbatean mendiko baserrietara musika eta umorea eramanez, eta igandean herriko karriketan. Azken 25 urtetatik hunat aldaketa batzuk izan dira inauterien antolamenduak: betitik igandean, astelehen eta astearteekin ospatu izan dira, baina bizimodu eta lanak aldatuz gan baitira, larunbata eta igandera pasatu ziren. Bertze alde, mendiko baserrietara gatea mantendu da, baina gainetako auzoetara ez da gaten. Eta azkeneko aldaketa: etxeetara sartu eta "Ihaute-ihate, zingarrata arroltze, bat edo ber-



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Tikienek ederki pasatu zituzten inauteriak, musika lagun zutela.

tze, biak edo bat, biak edo bat" kantatzen zen leloa ahanzten gaki da...

**Zugarramurdiko basurdea ETB2ko sukaldaritza saioan**

Otsailaren 22ean ETB-2ko "Secret chef" programan, Zugarramurdin basurdea nola prestatu erakutsi zen.

Horretarako, sukaldari italiar bat izan ginen herrian, eta bere laguntzeko, hor ibili ziren Amaia (bere erre-zeta eskeiniz), Toñin eta Juanmi (basurde ehizako kontuekin), Inaxio (onddoketan), Maria Jesus, Mertxe, Karmen, Kruzis eta Dolores (kantuz), Inma (sorginkertan), Elena, Prexen, Joxe, Miren, Erik... eta bertze batzuk.

**Oinezerako bolondres bila**

Nafarroa Oinez Elizondon egiten da. Bixtan da gisa huntako bes-ta batek sekulako lana suposatzen duela eta 2.000 bolondresen laguntza bilatzen ari dira.

Bolondres bezala aritzeko, Marixan ostatuan badago informazioa, eta izena emateko aukera ere.



# URDAZUBI

GIZARTEA → BATZARRA OPOSIZIOKO KIDERIK GABE

## Partzuergoa desagertzea turismoarentzat kaltegarria dela uste du Udalak

### lñigo IMAZ

Azkar taldeko kideen ustez kaltegarria zaio herriari «Bertizko Turismo Partzuergoa desagertzea, zenbait udal bertatik aterazirelako». Ondorioz, desagerturiko erakundeak utzitako hutsunea nolabait bete asmoz, bilkurak egiten ari dira Garalur elkartearekin, eremu horretako turismoa bultzatzen jarraitzeko. Alkateak jakin arazi zenez Zugarramurdiko Udalarekin elkarlanean jarraitu nahi du Urdazubik, bai eta Xaretarekin loturak sendotu ere. Azken honen baitan izandako bileren berri emateko prest azaldu zen alkatea.

Alkateak jakitera eman zuen Fitur ferian egon zela, herriak bertan izan zuen presentzia dela eta. Nafarroa-

ko hainbat leku esanguratsurekin batera protagonismo handia eman baitzaio aurten gureari. Udalak eskerrak luzatu nahi dizkie Muthiko Alaiak taldeko kideei nahiz Fabaren Erregearen jaietan parte hartu zuten urdazubiarrei, eta alkateak bereziki eskertu nahi izan zuen Itziar Galaregi zinegotziaren lana.

### Harrobiaren aferari buruzko informazioa

Bertalalde, eta herriaren zer esan handia sortu duen harrobiaren aferra dela eta, Geroa Baik proposatuta, Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeko kideek Alkerdi harrobira egindako bisitaren azal-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako neska-mutikoez ederki pasatu zuten inauterietan mozorratuturik.

pena eman zuen Alkateak. Izan ere, urtarilean parlamentari talde bat Alkerdiko harrobira etorri zen bisitan, eta SOS Alkerdiko kide batekin batera. Alkateak ustiatze-eredu berriarekin, eta aurreikusitako leherketekin ados ez dagoela jakinarazi zien.

Bukatzeko, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu omen da Nafarroako Administrazio Auzitegiaren Mármol de Baztán enpresak Udalaren ebazpenaren aurka (leherketak geldiaraztekoaren aurka) planteatutako errekurtsioa

dela eta. Ondorioz, Udalak beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiaren erantzunaren zain dago.

### Udal bilkura oposiziorik gabe

Urtarrilaren 30ean ospaturiko Osoko Bilkuran, eta Urtxume taldeko kideen ausentzian, hainbat gai onartu ziren. Besteak beste, behin betiko onespenera eman zitzaion energia elektrikoaren merkaturatzeko udal sozietatea - Comercializadora Urda-

zubi S.L.- sortzeko espedienteari, Elektra Urdazubiren espediente normalizatu eta gero, Udal Gobernuak plaza turistikoa oharrean dioenez, «Nafarroako Gobernutik duplizitaterik ez dagoela ziurtatzen duen txostena jaso eta gero, energia elektrikoaren merkaturatuko duen udal sozietatea sortzeko espediente aurkeztu da». Aldeko lau boto emanik, sozietate hori sortzeko prozesua abiarazten duen espediente onetsi zen, 3.100 euroko kapital sozialaz hornitua.

**VENTA PEIO**  
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA  
Dantxarinea 31712 URDAX  
Ibardin 31780 BERA  
Luzaide 31660 LUZAIDE

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarineatik  
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com



**KULTURA** → LARREKO KULTUR GUNEAN AURKEZTU DU EMANALDIA BERRIKI

# Mundu osoan bezala Senperen ere gaitzeko arrakasta Kalakanentzat

Herri Urrats egunean aintziran eta maiatzaren 25ean Oreka TX taldearekin berriz ere Larreko joko du

**Franck DOLOSOR**

Munduan barna 80 kontzertu eskain ondoren, arrakasta biziki haundia izan du berriki Kalakan taldeak Senpereko Larreko kultur gunean aurkeztu duen emanaldian. Madonna Pop izarrarekin biziki ospetsu bilakatu den hirukotea kantaldiz kantaldi dabil orain eta Larreko aretoa laster bete dute. Família Artus talde okzitandarrarekin batean agertu ziren taulen gainean eta zenbait musika zati elgarrekin jo zituzten. Hitz ordu berezia izan zen taldeko artista bat herritarra baita, Jamixel Bereau. Kalakan hirukotea Senperen ikusi ahal izanena da berriz ondoko asteetan Herri Urratsen kontzertua eskainiko baitu maiatzaren 10ean. Gainerat, maiatzaren 25ean Larreko aretoaren taulen gainerat igoko dira berriz Oreka TX taldearekin *Heritmo* ikusgarria eskaintzeko.

## Senpertarrik ez Kontseilu Nagusian

Martxoaren 22 eta 29an departamenduko

hauteskundeak eginen dira Ipar Euskal Herrian eta Senperen ere bozkatu beharko dugu Uzta-ritzeko kantonamenduko bi kontseilari nagusiak hautatzeko. Orotarat, 7 hautagaitza daude bainan senpertarrik ez dago lehen lerroan beraz ez dugu herriko hautetsirikikusiko Pauen den Pirineo Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusian. Ahatik, bi hautagaitzen ordezkoren artean bi senpertar ageri dira: Brigitte Ryckenbusch (herriko kontseilari independentea) eta Artzai Mendiburu (EH Bai). Bertzalde, Francis Gellie EAJko hautagaiak lotura biziki herztzia du Amotzeko auzoarekin horko familia batean hazia izan baiden, nahiz eta sortez paristarra den. Bertze hautagai batzuek ere harreman estua dute Senpererekin, hauen artean Philippe Etcheverria arrangoiztarra eta Jean Louis Laduche azkaindarra. Biek lotura dute Senpererekin beren familien bitartez eta gainerat herriko lurretan ari dira laborantzian. Kantonamendu berrian 9 herri daude denerat bainan eremuz gurea da zabalena eta bigarrena herritarren kopuruari dagokionez.

## Kirolez kirol

Kirolzaleek zombait hitz ordu dituzte Senperen ondoko egunean. Trail lasterketaren laugarren edizioa martxoaren 8an ospatuko



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Kalakan taldekoak kontent Larreko eskainitako emanaldian.

da. 700 lagunek izena eman dute jadanik 21 kilometro luze eta 1.050 metrako desnibel positiboa daukan norvegiagokan parte hartzeko. Horretaz gain, 16 kilometrako oinezko ibilaldia ere proposatu du SPUC Lasterka taldeak (800 metroko desnibel positiboarekin). Inharrian eginen den bazkari-rako oraindik 60 leku



bazeuden hau idazterakoan. Txartelak 15 eu-

rotan salgai, 0611030078 telefonora deituz.

Apirilaren 11 eta 12an Lapurdiko itzulia eginen dute autoz Kantia aldeko oihanetan barna. Azkenik maiatzaren 2 eta 3an triatlotairean edizio berria iraganen da Ortzango errekan, erran nahi baita herriko aintziraren inguruan.

## SARA

GIZARTEA → SORKUNTZA ATELIERRA ETA ARGAZKIAK

# MyTandiren atelierra eta erakusketa zabalik

Herriko Etxeko edantegian ikusgai daude bere argazkiak

**Joana GERENDIAIN**

2014ko ekainetik Maite Andiazabal sara-tarrak bere sorkuntza atelierra muntatu du bere burasoen etxean. MyTandi izena dena atxemanana zen Myt: Maite andi: Andiazabal. Bere lana bi unibertsoan bereiz daiteke: alde batek, nini eta emazteentzako ohialezko sorkuntzak, koloretsuak eta poetikoak. Bertzaldetik, argazkiak ere egiten ditu, xuri eta beltzez gehienetan. MyTandik bere sorkuntzak udako merkatuetan saltzen ditu baina urtean zehar ere esku sortzaileen

merkatuetan. Bertzalde internetetik manatzeko aukera bada ere.

MyTandik lehen argazki erakusketa egiten du momentu honetan Herriko Etxeko edantegian, lhauteriei buruz.

## Informazio bilkura

Martxoaren 6an, ostiralarekin, arratseko 7etan Lur Berri gelan, auzapezak eta kontseiluak informazio bilkura bat antolatu dute plazako zirkulazio plano berriari buruz. Herritar guztiak gonbidatuak dira.

## Joanes Pailasoa

Martxoaren 7an, larunbatarekin, arratsaldeko 4:30ean Joanes Etxebestek ikusgarri bat emanen du Lur Berri gelan. Joanesek Pirritx eta Porrotxen modura pai-

laso ikusgarri bat egiten du haur eta haundientzat.

## Har hitza eguna

"Har Hitza" Sarako ezkerreko mugimendu abertzaleak, Martxoaren 8an Saran besta bat antolatzen du emazteen borroka eta bertze aldarrikapenak plaza-ratzeko.

Herriko plazan iraganen da goizeko 11etan auzo herrien arteko herri kirolekin. 12etan ekitaldi ttiki bat, hitzartzea eta bertsulariekin. Ondotik aperitif pintxoekin, musikariek alaiturik.

## Mus txapelketa

Martxoaren 21ean, larunbatarekin, Sarako Izarra errubi elkarteak mus txapelketa bat an-



ARGAZKIA: MAITE ANDIAZABAL

Mytandi atelierrako sorkuntzak eta inauteetako argazkiak.

tolatzen du Lur Berri gelan. Izena emaitako 0611634426 edo 0613951254 zenbakietara deitu behar da.

## Selauru hustea

Martxoaren 22an, igandearrekin, selauru huste bat antolatua izanen da polikiroldegian. Goizeko 8etan hasiko da eta egun osoa irauenen du. Toki bat erre-serbatzeko 0631215192 zenbakira deitu behar da.

## Eskubaloi eta errubi emaitzak

Otsailaren 14-15eko asteburuan, eskubaloiaren seniorrek 14-11 irabazi dute. Errubian, nagusiek 60-0 galdu dute Pouilloneko ekiparen kontra. Otsailaren 21-22eko asteburuan, errubiariek 12-9 irabazi dute Puyooren kontra.

Otsailaren 21ean, eskubaloiaren seniorrek 16-14 galdu dute Barzuneko ekiparen kontra.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

**Martzutzak**  
**ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA**  
 ♥ Soinekoak  
 ♥ Ilerako apaingarriak  
 ♥ Poltsak  
 ♥ Bisuteria  
 ...  
 f Bidasoa, 12 • BERA  
 948 631 425

## EZKONTZAK

**Enrique Irazoki Eleta** eta **Amaiur Arroyo Berasain**, Sunbilla eta Ultzamakoa, otsailaren 23an Sunbillan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Ibai Erkizia Amoros**, Doneztebekoa, otsailaren 15ean.

**Saioa Urreaga Elizondo**, Doneztebekoa, otsailaren 15ean.

**Aiala Bengoetxea Aranburu**, Leitza-koa, urtarrilaren 25ean.

**Eneritz Muñoa San Juan**, Lesakakoa, otsailaren 11n.

**Haizea Zelaia Jorajuria**, Donamari-koa, urtarrilaren 20an.

**Mikel Eugi Mendizabal**, Igantzikoa, otsailaren 7an.

**Liam Bryan Logacho Garcia**, Igantzi-koa, otsailaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Juana Maria Mendiburu Gillenea**, Elizondokoa, otsailaren 11n, 61 urte.

**Juliana Arburua Irazoki**, Berakoa, otsailaren 12an, 94 urte.

**Pilar Mitxeltorena Gamio**, Donamari-koa, otsailaren 13an, 98 urte.

**Inaxi Artieda Telletxea**, Berakoa, otsailaren 13an, 99 urte.

**Maria Isabel Mitxeo Oteiza**, Sunbillakoa, otsailaren 13an, 88 urte.

**Juan Tomas Juankorena Ibarra**, Sunbillakoa, otsailaren 15ean, 59 urte.

**Francisco Javier Loperena Elizalde**, Sunbillakoa, otsailaren 15ean, 56 urte.

**Tiburcio Inda Etulain**, Elbetekoa, otsailaren 16an, 88 urte.

**Xatur Elizegi Lujanbio**, Goizuetakoa, otsailaren 16an, 84 urte.

**Oscar De Rueda Larraya**, Arantzakoa, otsailaren 21ean, 80 urte.

**Jose Maria Gortasi Pastor**, Lesakakoa, otsailaren 22an, 104 urte.

**Joaquina Zestau Zabaleta**, otsailaren 21ean, 83 urte.

**Karlos Gaztañaga Arribillaga**, Leitza-koa, otsailaren 24an, 59 urte.



### Loreto LAZKANO ARRIETA

Arantzan, 2015eko otsailaren 6an hil zen

*Amatxi, barkatu noizbait zurekin gaizki portatu bagara. Oso ona izan zara gurekin eta horregatik aunitz maite zaitugu.*

*Beti gure bihotzean egonen zara.*

**ZURE FAMILIA**




### Evangelina PEÑA ETXETO

Beran, 2015eko otsailaren 9an, 84 urte zituela

*Guregatik egin duzun guxtiagatik, eskerrik asko, amatxi.*

*Beti gogoan izanen zaitugu.*

**KAULEKO FAMILIA**



Koskontako Bidea, 7-1  
LESACA | 948635458

**Rekordatorioak egiten ditugu**





ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Binakako nahiz lau eta erdiko txapelketetan parte hartu duten pilotarietako batzuk, sari banaketaren ondotik.

**BORTZIRIAK**

Banakakoaren finalak hilaren 14 eta 15ean

**TTIPI-TTAPA**

Bortzirietako eskuz banakako hamalau-garren pilota txapelketaren finalak martxoaren 14 eta 15ean jokatu dituzte, larunbatean Arantzan eta igandean Lesakan. Ondotik banatuko dituzte sariak.

**PILOTA** → OTSAILAREN 21EAN DONEZTEBEN ZAZPI PARTIDA

# Malerrekako eskuz binakako txapelketaren finalak jokatu dituzte

Elite mailan, Mendinueta eta Imaz suertatu ziren txapeldun

**A. AROTZENA**

Otsailaren 21ean jokatu zituzten Erreka elkar-teak hamahirugarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren zazpi finalak 500 bat ikusle bildu zituen Doneztebeko pilotalekuan.

Aurten partida guztiak larunbat goizez jokatu zituzten eta elite mailako final nagusian, Txukun Lakuako Mendinuetak eta Ander Imaz oiartzuarrak 22 eta 17 irabazi zieten Ugaitz Elizalde iturendarrari eta Iñaki Eskudero eratsundarrari.

Benjamin mailako finalean, Lazkaoko Zubizarreta eta Iribarriak 18 eta 6 irabazi zieten Errekako Agesta eta Erbitiri.

Alebin mailan, Añor-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Elizalde iturendarra pilota astintzen elite mailako finalean.

gako Amiano eta Unanuek 18 eta 9 irabazi zieten Naxerako Matteo eta Orozkoko Arbaizarrari.

Infantiletan, Obere-nako Oskoz eta Cuarainek, 18 eta 9 irabazi zieten Barberito I.eko Ariztegi eta Bobadillari.

Kadete mailan, gipuzkoarren arteko lehi-an, Lazkaoko Zubizarreta eta Aginagako Arangurenak 18 eta 7 irabazi zieten Zazpitu-

rriko Zabala eta Zubeldiari.

Jubeniletan, Zugarraldeko Ansok eta Lazkaoko Garmendiak 22 eta 9 irabazi zieten Zestoako Illaramendi eta Aranberriari.

Bigarren mailako seniorretan Aurrera Saizeko Mendy eta Imazek 22 eta 15 irabazi zieten Hernaniko Urkizu eta Lizeagari.

Elite mailan, Txukun Lakuako Mendinuetak

eta Oiarpeko Ander Imazek 22 eta 17 irabazi zieten Errekako Ugaitz Elizalde iturendarrari eta Ardoi taldean ari den Iñaki Eskudero eratsundarrari.

Finalen ondotik, sari banaketaren txanda izan zen eta BigMat Menditxuri babesle nagusiaren, Udalbide edo Pilota Federazioko eta bertze erakunde laguntzaileen ordezkari-tzarekin batera, Pedro Arozarena Nafarroako Gobernuako ordezkaria, Doneztebeko Udaleko Miguel San Miguel alkatea eta Oskar Míndegia zinegotzia edo Joseba Legarra Errekako presidentea izan ziren ekitaldian. Minutuko isil-lunea ere gorde zen, berriki hil den Julen Juankorena Errekako pilotariaren aitaren ome-nez. Binakako txapelketaren sariak ez ezik, Errekako pilotari-arte-an jokatu den lau eta erdiko txapelketaren sariak ere banatu zituzten.

## Lau eta erdikoaren finalak bezperan

Errekako pilotari-arte-an jokatu den lau eta erdiko txapelketaren finalak bezperan, otsailaren 20an jokatu zituzten Donezteben. Hauek izan ziren emaitzak:

**Aurrebenjaminak:**

Ander Retegik, 18-Javier Zabalak, 17.

**Benjamin B:**

Mikel Telletxeak, 3-Ho-dei Iriartek, 18.

**Benjamin A:**

Oihan Sarrateak, 9-Xu-ban Erbitik, 18.

**Alebinak:**

Ruben Saldiasek, 18-Aitor Agestak, 15.

**Infantilak:**

Gaizka Agirrek, 18-Pa-txi Loiarlek, 7.

**Kadete B:**

Martin Muñozek, 18-An-gelo Etxeberriak, 14.

**Kadete A:**

Enaitz Telletxeak, 6-An-doni Gaskuek, 18

**Jubenilak:**

Julen Juankorenak, 18-Aritz Fagoagak, 10.

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

# BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**  
**HORIAN** SARTU BEHAR DITUZUN  
ONTZI ARINAK

# BAI

## PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ozpina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko  
ontziak, latak  
eta brikak

Hutsak eta janari  
hondarrik gabe  
sartu behar dira  
edukiontzian

## ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...



[www.baztangoudala.eus](http://www.baztangoudala.eus)




[www.malerrekakomankomunitatea.com](http://www.malerrekakomankomunitatea.com)



[www.bortziriazabor.com](http://www.bortziriazabor.com)

## BRIK ONTZIAK



Brik ontziak  
(zukuak, esnea,  
arrautza likidoa,  
ardoa...)



**ECOEMBES**

[www.ecoembes.com](http://www.ecoembes.com)

## martxoak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

Ikuskizunak	Ospakizunak	Bertsoak
 <p><b>ELIZONDO   2015.03.08</b> <b>Baztan Ikastolak antolatuta Pirritx, Porrotx eta Marimotots</b> <i>Txo, Mikmak txikia</i> ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 8an Pirritx, Porrotx eta Marimototsen aurkezpenean. 16:30ean hasiko da saioa.</p>	 <p><b>ESKUALDEA   2015.03</b> <b>Korrika Kulturalarekin hainbat ekitaldi eskualdean</b> Korrikaren baitan, ekitaldi ugari izanen dira: bertso Korrika Elizondon, magoa Areson, Korrika Eguna eta mendi marxa Baztanen, antzerkia Beran, bertso-afaria Igantzin...</p>	 <p><b>GOIZUETA   2015.03.06</b> <b>Bertso-afaria antolatu du Gazte Asanbladak</b> Iker Zubeldia eta Fredi Paia bertsolariak gonbidatu dituzte Goizueta eta Nash DJ-a Lur aretoan. 22:00etan hasiko da.</p>

**Erakusketak**

LEITZALDEA

**'Mayar emakumeak. Duintasunezko koloreak'**

Martxoaren 9tik 30era.

**Hitzaldiak**

BERA

**'Auzolanean bakea eraikitzen' jardunaldiak**

Martxoaren 5ean etorkizunaz hausnarketa Beralandetan (19:00).

AMAIUR

**'Amaiur 1512' hitzaldia**

Martxoaren 6an Otsondo Barride elkartean, 19:00etan.

DONEZTEBE

**'Energia eta elikadura jasangarria'**

Martxoaren 6an 18:00etan Kasinoan.

**'Adosten gure seme-alabekin'**

Martxoaren 9an DBH-ko liburutegian (10:00).

LEITZA

**Sexualitatea familia ereduaz hitz egiten**

Martxoaren 10ean eta 17an eskolan (15:00).

**'Yach'il antzetik, emakumeen etxe****komunitarioa (Txiapas)'**

Martxoaren 11n Ate-kabeltzen, 18:30ean.

**Ikastaroak**

BORTZIRIAK

**Haur elikadura eta nutrizioa**Martxoaren 4an *Dieta bereziak behar dituzten pertsonak* Beran.Martxoaren 18an *Escola-jantokien hezkuntza-alderdiak* Arantzan.**Kontzertuak**

SUNBILLA

**Malerreka kantuz**

Martxoaren 7an 12:00etan.

**Kantu zaharren besta**

Martxoaren 14an Ariztigain kanpinean.

IRURITA

**Baztango Haur Kantarien Topaketa**

Martxoaren 7an elizan, 18:30ean.

ETXALAR

**Dorrnoso eta Hicks**

Martxoaren 14an Herriko Ostatuan (23:30).

ELIZONDO

**Ilun&Sun eta Nash DJ-a**

Martxoaren 7an Ilun &amp; Sun eta 14an Nash DJ-a Lur aretoan.

BERA

**Jeiki Abesbatza**

Martxoaren 8an elizan, 13:00etan.

**Ipuin-kontalariak**

ELIZONDO

**Ipuin ez sexistak**

Martxoaren 10ean 17:30ean Liburutegian.

BERA

**4-8 urte bitartekoentzat**

Martxoaren 13an 18:00etan Liburutegian.

**Antzerkiak**

BERA

**'100 m<sup>2</sup>' antzezlan**

Martxoaren 14an 20:00etan.

**Bertsoak**

NAFARROA

**Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak**

Martxoaren 7an

Berriozarren (17:30).

Martxoaren 8an Lesakako Kultur Etxean (17:30).

Martxoaren 15ean

Burlatan (17:30).

GOIZUETA

**Bertso-afaria**

Martxoaren 6an Umore Ona Elkartean (22:00).

ELIZONDO

**Bertso-Korrika**

Martxoaren 13an Intza ostatuan, 19:00etan.

**Ikuskizunak**

ELIZONDO

**Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira**Martxoaren 8an *Bertsolaritzaren sekretuak, isilduriko emakumeak* Arizkunenean (19:00).**Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

Martxoaren 8an 16:30ean Lur aretoan.

SARA

**Pailazo ikuskizuna**

Martxoaren 7an 16:30ean Lur Berrin.

ARESO

**Korrika Kulturala**

Martxoaren 14an Hodei magoa, 17:30ean.

**Azokak**

LEITZA

**Stock azoka**

Martxoaren 7an.

ITUREN

**Artisau eta lanbide azoka**

Martxoaren 8an.

## PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Hitzaldiak, mendi ibilaldia, film eta dokumentalak, argazki erakusketa, bizikleta marxa... Denetarik prestatu dute eskualdean martxoaren 8aren bueltan, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela orotuz. Bortziritan, erraterako, seigarren aldiz emakumeen mendi ateraldia egingen dute. 09:00etan aterako dira Igantziko Herriko Etxe paretik.



## Filmak

LEITZALDEA

### 'Loreak' pelikula

**Martxoaren 13an** Are-soko erabilera anitzeko gelan 19:30ean.

### Martxoaren 15ean

Goizuetako Ganbaran, 18:00etan.

**Martxoaren 18an** Arano Ganbaran (18:00).

### 'Arrakala' dokumentala

### Martxoaren 5ean

Leitzako Atekabeltzen, 19:00etan.

ELIZONDO

### 'Festa dezagun gaurdanik geroa'

### Martxoaren 18an

Arizkunenean (19:00).

DONEZTEBE

### Zinema

### Martxoaren 8an

16:30ean *Justin*.

## Ospakizunak

AMAIUR

### Gazteluaren inaugurazio ekitaldia

**Martxoaren 7an.**

BAZTAN

### Korrika besta

**Martxoaren 14an.**

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

### Mendigoizaleen irteerak

**Martxoaren 7an** Kontrabandistak Erratzun.

**Martxoaren 8an** Izpegitik Olatera, 07:30ean.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

**Martxoaren 15ean** Arizkundik Eskizera, 08:00etan abiatuta.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Azken txorakIKERiak

KIKE AMONARRIZ

Argia, 2014

1980. urtean hasi zen Kike Amonarriz umorea-ri tarte eskaintzen Argia aldizkari orrialdeetan, *Titiriteroak* sailean. Geroztik, astero-astero txisteak argitaratzeari ekin zion tolosarrak, eta horien hainbat bilduma plazaratu ditu aipatutako aldizkariak; lehenbizikoa 1983an, *Arpa jutzen* izenburuarekin. Ordurako Euskal Herri osoan barrena zebilen Amonarriz, Joxe Ramon Gallargarekin batera, txiste afariak egiten. 1998an *Txorakikeriak* saileko estreinako alea eman zuten argitara eta orain, berriz, *Azken Txorakikeriak* izeneko alea argitaratu dute, *Txorakikeriak* bildumaren bosgarren alea da. Izenburuak, nahita, ateak zabalik utzi dizkio zalantzari: azkena, behin betiko... edo momentuz baino ez? Ez jakin. Ezta egileak berak ere, aitortu duenez. Liburu honetan jasotzen diren txisteak, Argian azken hamarkadan argitaratutako txisteen hautaketa bat dira.

### Musika




Som-Riu

TXARANGO

Baga-Biga, 2015

Txarango talde kataluniarra etengabe ari da zabal-tzen. 2010ean bi kanta grabatu zituzten eta geroztik ospe handia lortu dute. 2012an *Benvinguts al llarg viatge* diskoa argitaratu zuten eta euren web orrian doan jasiteko modua ere paratu zuten. 2014an, berriz, *Rom-Riu* diskoa argitaratu zuten eta geroztik hainbat tokitan dabilta, Euskal Herrian ere bai. Musika erakargarira egiten dute, eta euren proposamena munduarekin etengabeko haserre marmartiarri haserre baikor eta txunditzailearekin aurre egitea da. Txarangoaren musikak batuko ditu Mediterraneo itsasoaren inguruko doinuen zertzeladak eta nahasketa ludikoa hegoamerikar eritmo latino dantzagarriekin batera. Denetarik aurki daiteke Txarangoaren diskoetan, zertzelada anitz eta horien artean musika salsa, buhame, cumbia, balada, habanera, reggae, dub, rock, ska... Hitzek eta doinuek bat egiten dute baikortasunean eta pisu ideologikoak aldatetaren alde, iraultzari aurpegi alai margotuz.

### Internet



Euskal Herriko herrien izenen mapa digitala

WWW.UZEI.EUS/ONLINE/EH-MAPA/

Euskal Herriko herrialde guztietako herrien euskal izenak, izen ofizialak eta herritarren izenak, Euskaltzaindiak arautuak dituenak, mapa digital batean bildu ditu UZEIk, erabiltzaileek informazio guztia erraz aurkitzeko moduan. Euskal Herriko herrien eta herritarren izendapenak are errazago bilatzeko, koloreka bereizi dituzte zazpi herrialdeak. Mapan nabigatu ahala bistara daiteke informazio osoa ikonoaren gainean klik eginda (herri bakoitzaren euskarazko izena, izen ofiziala eta herritarren izendapena), baina bilaketa-leihoan edota goitibeherako zerrendan ere egin daitezke bilaketak. Euskaltzaindiak 1998tik 2009ra bitartean plazaratu dituen hamar arauen informazioan oinarrituz prestatu du UZEIk mapa eta guztira 669 herri agertzen dira mapa digital honetan, honela banatuta: Arabakoak 55, Bizkaikoak 112, Gipuzkoakoak 88, Lapurdikoak 41, Nafarroa Behereakoak 58, Nafarroakoak 272 eta Zuberoako 43.

## Nire aukera



Amaia ZELAIETA

Exalarako gaztea

### «Mila irri-argara egin eta besta eder bat botatzea bezalakorik ez dago»

Klik hemen eta klik han, «berdin du zeri, nori, noiz, nola...» kamara ondoan «beti argazkiak ateratzeko prest» egoten dela erran digu 18 urteko etxalartarrak. Neska alai eta bestazalea da eta denbora librean «kuadrilarekin elkartuta otordu eder bat egitea eta euskal dantzak dantzatzeari maite du. Asteburuetan izaten du biak uztartzeko aukera, besta non, Amaia han izaten baita, «lagun eta ezagunekin mila irri-argara egin eta besta eder bat botatzea bezalakorik ez dago». Etxalarrek soberan ez duela «deus» dio eta faltan «herriari bixitasuna emateko ekitaldi zein besta gehiago egitea akaso». Inguruko txokorik ederrenaz galdetuta, Atxuri magalean dagoen Loretxoa behatokia aipatu digu, «Atxurira joan denero bertan geldialdia egin duelako». Etorikizuna beltz xamar ikusten du «nahiz eta gauza aunitz aurreratu diren bertze zentzu batzuetan berdin edo okerrera egiten sigitzen baitugu». Baina tira, amets egitea libre denez, egunen batean «nire amets guztiak beteko direla pentsatu behar dugu».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.** Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**  
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**  
- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomiko. ☎646 774177.

**BERA.** Altzaten, Iparralde karrikan pisua salgai. Berritua. 3 logela, egongela, komuna, sukalde, balkoia eta berogailuarekin. ☎677 813646.

**LEITZA.** Uharte Gotzain pisua salgai. 90 m<sup>2</sup>koa, 2. solairuan, igogailuarekin. Sukaldea, komuna, berogailua eta leihoak berrituak. Balkoia eta leihoak kanpo aldera. ☎637 806044.

**ORONOZ-MUGAIRI.** Etxebizitza berria, mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. Logela bat, bainugela bat, sukalde-egongela eta trastelekua. 72.000 eurotan

**MERKATU TTIKIA**

**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo www.ttipi.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

salgai edo 300 eurotan errentan emateko. ☎626 463576.

**BERA.** Altzate karrikan pisua salgai, zaharberritzeko. ☎948 630446/635 729858.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**IRUN.** Pisua errentan emateko: 3 logela, jangela eta egongela, sukalde eta bainugela. Prezioa: 600 euro. ☎687 832844.

**DONEZTEBE.** Duplexa errentan emateko. Sukalde, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.




**BERA.** Etxebizitza errentan eman nahi da Itzea karrikan. ☎609 973306.

**LESAKA.** Pisua errentan emateko, gelaka alokatzeko, errentan hartzeko erosteko aukeran edo saltzeko. 4 gela, komuna, egongela handia, sukaldea eta terraza itxia. ☎677 356461.

**URDAZUBI.** Dantxarrianean apartamentuak errentan emateko. Bat 3 logela, egongela, sukalde eta balkoiarekin, 110 m<sup>2</sup>. Eta bertzea logela, saloi-sukalde eta trastelekuarekin, 45m<sup>2</sup>. ☎690 388134.

**ALMUÑECAR**ren, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen erroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokitua. ☎658 943702.

**LEGASA.** Pisua errentan emateko edo saltzeko. Berritua. Berogailua. Dena kanpora begira. 3 logela. ☎677 089046.




**ETXALAR.** Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko. 3 logela, mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎676 707620.

**LESAKA.** Etxebizitza errentan emateko. 4 logela, egongela, komuna eta sukalde. 3. solairua eta dena kanpora begira. 100m<sup>2</sup>. Bitartekorik gabe eta momentuan sartzeko prest dago. 450 euro hilean. ☎686 378154.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** Eltzetako plaza lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**BERA.** Etxea eraikitzeko partzela urbanizatuak salgai. Deitu 18:00etatik aitzinera. ☎618 963226.

**LANA**  
eskariak

**Neska langilea,** arduratsua, exigentea, itxura onekoa eta esperientziarekin lan bila dabil: etxe eta enpresak garbitzen, adinekoak eta haurrak zaintzen... ☎634 740317.

**Doneztebeko emakue** euskaldun batek

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(otsailaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 42 € (+7,00)

**Zerri gizona**  
1,080 € kilo. (+0,031)

**Zerramak:**  
0,400 € Kg/bizirik. (+0,020)



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,16  
**1.koa** 4,96  
**2.koa** 3,78

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,26  
**1.koa** 4,00  
**2.koa** 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00  
idixkoak 160,00  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,90/6,50  
8-10 kilokoak: 5,50/5,70



etxeko lanetan, haur edo adinduak zaintzen lan eginen luke. ☎673 372938.

Etxeko lanak egin eta adinekoak eta haurrak zaintzeko **emakumea** prest dago. Esperientziaduna. Ahal bada goizez. ☎948 630914/678 903294.

**ARANTZA.** Neska bat etxeko lanetan, zerbitzari, sukaldari laguntzaile, umeak eta adinekoak zaintzen ariko litzateke. ☎606 304610.

**BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK.** Mutil euskalduna orduka edo lanaldi osoan aritzeko prest dago; sukaldari eta barran esperientzia, jendarterako dohainekin. Orduz gain zein egutegi aldetik malgutasun erabatekoa. ☎948 453228.

**LANA eskaintzak**

**ZUGARRAMURDI.** Jatetxe batean zerbitzari bat behar da. Asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez jakitea beharrezkoa. ☎948 599187.

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatetxean frantsesa dakien eta esperientzia duen zerbitzaria behar da. ☎948 599146 / 948 599009.

**ZERBITZUAK klase partikularrak**

**ELIZONDO.** Gainditu ingelesa! 2015eko martxoetik maiatzera Elizondon. Astelehenera 17:30etik 19:00etara edo 19:00etik 20:30era. Apuntatzeko azken eguna: 2015eko martxoaren 8a. ☎659 948926 / dianainiesta@hotmail.com.

**ZERBITZUAK denetarik**

**ROSA BELZUNEGI PSIKOANALISTA**  
Kontsultarako eskatu ordua  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**SUNBILLA.** Nire etxean, 0-3 urte bitarteko haurrak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dut. ☎678 537607.

**MOTORRAK salgai**

**ARIZKUN.** Golf v gt tdi autoa salgai, 140 cv. Arras egoera onean, auto zoragarria, dena homologatua. Beltza. 2008koa. ☎699 375558.



**Toyota Land Cruiser 3.0 D4D VXL** salgai, rebisioak egunean, 108.000 km, 2007koa. ☎650 409246.



**Suzuki Burgman Ejecutive** 650 c.c motorra salgai. 16.000 KM. 2005. urtekoa. Egoera bikainean. Erabilera ezagatik salgai. ☎689 702441.



**ANIMALIAK salgai**

**Border Collie arrazako zakurkumeak** salgai. Atta eta ama langile finak. ☎661 767027.

**Behor** ttikia eta mantsoa salgai. ☎687 950373.



**ETXALAR.** Behi ernaria eta urte bateko migala salgai. ☎948 635182.

**Biasto** eder salgai, ama kumearekin eta ernari. Prezio negoziagarria. ☎690 181644.

**ANIMALIAK oparitzeko**

**Spaniel arrazako zakurra** oparitzeko. Emea eta hagitza polita. ☎677 594892.

**LEITZA.** 3 zakurkume oparitzeko, ardi zakurrak, hilabete batekoak. ☎948 510224.

**DENETARIK salerosketak**

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritz. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**Silo bolak** salgai. Belarra eta sorra. ☎690 388134.

Pigini markako **trikitixa** salgai. Trikitixa-III, Si b-Mi b. 1.250 euro. ☎660 972692.



**EZKURRA.** Arkazi piketeak salgai, 2 euro eta erdi bakoitza. ☎948 510143 / 600 699266.

**Ile naturala duen peluka** salgai, gaztaina kolorekoa eta sorbaldarinokoa. Sare berezia du, ona da eta onkologiarako egokia. ☎609 083342.

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

**11.900€**

LAGUNA GRAND TOUR TOM-TOM DCI 130 CV  
2009 urtekoa - 53.000 km

**6.100€ +BEZ**

KANGOO ITXIA DCI 70 CV  
2009 urtekoa - 59.000 km

**13.300€**

CLIO IV DYNAMIQUE DCI 90 CV  
2014 urtekoa - KM 0  
Nabigatzailea, klimatizadorea...

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**  
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

Estreinatu gabea dagoen Pioneer markako **Home Cinema** salgai. Ekipo bikaina. Prezio hagitza ona. ☎629 734263 (Arratsaldetan).



**Bigarren eskuko josteko makina** nahi dut. ☎662 585965.

**DENETARIK galdu-aurkituak**

**DONEZTEBE.** Zabala enpresaren parean Sony Xperia L sakeleko telefonoa agertu da. ☎649 901395.



**IGANTZIKO UDALA**

**1. poligonoko 846. lurzatiaren xehetasun azterlana.**

**Hasierako onespena**

Igantzi Udalak, 2015eko otsailaren 19an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea 1. poligonoko 846. lurzatiaren xehetasun azterlana eta honen eranskina, dagoen eraikina handitu eta bertan bizitza berria egiteko.

Sustatzailea Julen Txoperena Migelena jauna da.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hoguei egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitezten. Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, dokumentua behin betiko onetsitako da, bidezko bada.

Igantzi, 2015.02.20

Alkatea,  
M. Lourdes Ibarluzea  
Irureta

← **hemen agertu nahi duzu?**

egin zure erosketa  
**www.ttipi.eus** en

**IRAGARKIA**  
2 aldizkaritan eta interneten **8** EURO

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.eus bitartez



**ALBA FEITO** lesakarrak 5 urte beteko ditu martxoaren 11n. Zorionak aita eta ataxi-amaxiren partetik.



Berako **IZARO ETXEPARE ELRIOK** otsailaren 21ean 11 urte bete ditu. Zorionak eta muxu potolo bat familia guziaren partetik!



Zorionak Lesakako **XABIER VALVERDE LEIZARI** otsailaren 19an 7 urte bete ditu eta. 7 muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Elizondoko **JANIRE URREAGA IBARRAK** martxoaren 5ean 3 urte beteko ditu. Auniz urtez Sunbilla eta Elbeteko familiaren partetik eta bereziki zure ahizpa Leireren partetik! Muxu haundi bat potxola!



**MARCEL IRAZOKI AGIRREK** otsailaren 24an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik!



Goizuetako **BEÑAT NARBARTE MAKATZAGAK** 3 urte beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Doneztebeko **MIKEL BELARRA ZUBIETAK** bi urte beteko ditu martxoaren 7an. Zorionak bihotzez aitaxo eta amaxoren partetik. Muxu bat bikixto.



Lesakako **MAIALEN eta IRATI ORUBERIA** ebeko printzesek heldu den martxoaren 7an 3 urte beteko dituzte. Auniz urtez familia guziaren partetik eta batez ere Jone ahizpa nagusiaren partetik. Hagitz ongi pasa eguna eta-prestatu pastela denentzat.



**IRATXE LOIARTE PETRIKORENA** igantziarrak otsailaren 19an 11 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partetik.



Zorionak Sunbilla **EKIÑE BERTIZ ARIZTEGIRI**, otsailaren 23an 6 urte bete ditu. Sunbilla eta Etxalarko familia, baina bereziki Joanes, Urki, Haritz eta Jone.



Zorionak poxpoltxo! Doneztebeko **IRATI AGIRRE HUARTE** gure neskatxak 3 urte bete ditu. Muxu eta besarkada aitaxo eta amaxoren partetik.



**IZEI OJENBARRENA ETXEPETELUK** martxoaren 16an 2 urte beteko ditu. Auniz urtez mattia eta mila muxu amatxo, attatto eta familia guziaren partetik!



Arantzako **ALAZNE BALEZTENA GOÑIK** 3 urte beteko ditu martxoaren 14an. Auniz urtez Eratsungo familia eta bereziki Aitor eta Maddiren partetik! Muxuak printzesa



Nire super-birramonak, **ANTONI SEGUROLA EGIAK**, 96 urte beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak (bir)amona eta muxu erraldoi bat!



Zorionak **FERMIN**, Zeruntako osaba eta izebaren partetik. Muxu asko, asko gogoratzen gara zuretz.

## LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK

## Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa<sup>rekin</sup> zure iragarkiak eragin haundiagoa du

**TTIPI-TTAPA**  
27.000 irakurle

- D. NOTICIAS 12.000 irakurle
- D. NAVARRA 10.000 irakurle
- GARA 8.000 irakurle
- MARCA 2.000 irakurle
- BERRIA 2.000 irakurle
- BESTE BATZUK 7.000 irakurle

Sexuaren arabera  
GIZONAK %36,80  
EMAKUMEAK %63,20

Adinaren arabera  
14-24 urte %8,50  
25-34 urte %15,10  
35-44 urte %25,40  
45-54 urte %20,90  
55-64 urte %17,90  
+ 64 urte %12,20

Ikasketa mailaren arabera  
IKASKETARIK GABE %1,40  
LEHEN IKASKETAK %11,70  
LANBIDE HEZIKETA %37,00  
BATXILERGOA %30,80  
UNIBERTSITATEA %19,00

Datu iturria:  
CIES 2014ko 2. neurketa

BAGOAZ BAGUZI BAGAZI  
 HAZIZ  
 ttipi-ttapa haziz!  
 TTIPI-TTAPA



zuk 50€ ttipi-ttapari ematen badizkiozu  
 40€ berreskuratuko dituzu  
 2015eko errenta aitortzean  
 % 80ko desgrabazioa errenta aitortzean



...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapak?

- Aldizkaria hamabostero argitaratu eta zure etxera eraman
- Web orriaren eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Eskualdeko berriak landu...

ETA GUZTIA  
 EUSKARATIK ETA EUSKARAZ



**MEKONA**  
 MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Mallerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa bazara guk deituko dizugu.  
 Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu  
**948 635 458** telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri [bagoaz@ttiipi.eus](mailto:bagoaz@ttiipi.eus) posta elektronikoan

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE  
72073111-B  
04/2014  
123456

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7 LESAKA  
T. 948 635 458 | F. 948 635 457  
info@ttipi.eus  
www.ttipi.eus

# ZOZKETAK

631. ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onddo ta punto  
M<sup>a</sup> Jesus Etxartea | **ELIZONDO**

2 LIBURU | Ttartalo argitaletxea

"Aurretik ondoren" Manuel Telletxea | **IGANTZI**

"Untxiaren alegia" Celia Etxeberria | **IGANTZI**

3 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea "Maitasun sua"

Elisa Mendiburu | **ELIZONDO**

Eduarne Urroz | **SUNBILLA**

Severino Retegi | **IGANTZI**

2 LIBURU | Erein argitaletxea

"Dragoia" Rosa Mendiburu | **ELIZONDO**

"Erregearen mezularia" M<sup>a</sup> Asun Perurena | **ARIZKUN**

2 SARRERA BIKOITZ | Irrisarriland

Felix Bergara | **ARANTZA**

Kristina Ballarena | **ELIZONDO**

"Akatsa sistemari" (Lurra) CDA  
Elena Retegi | **IGANTZI**

1

2 SARRERA

Sorginen lezeak

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

ZUGARRAMURDIKO  
SORGINEN LEZEA



2

LOTEA  
Martiko

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



3

"BIZIPOZA" CDA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

[www.katziporreta.com](http://www.katziporreta.com)



4

2 LIBURU

Elkar argitaletxea

"Rita erraldioa" | "Diamantezko miraria"  
[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)



elkar

5

SARRERA BIKOITZA

Irrisarri Land

[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)



6

2 SARRERA

Donostiako Aquariuma

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN  
**AQUARIUM**



# DESKONTUAK

  
**LESAKA**  
%10 lentzerian

**POTTOKI**  
  
**ELIZONDO**  
%5 oparitzeko artikulu txikietan

  
**FOTO MENA** ELIZONDO  
ELIZONDO | %10 kopia digitaletan

  
**Alustiza**  
DONEZTEBE  
%10, 30etik gorako gastuan